

# Goienkaria

2008ko otsailaren 15a > Egubakoitza > VIII. urtea > 320. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Aljeria eta  
Lizarra-Garazi  
bezalako bake  
proiektuak  
amaitu egin  
dira"

Patxi Zabaleta  
Aralarreko idazkari  
nagusia > 09



**ATXILOKETAK**  
Baltasar Garzonek kartzelara  
bidali du Aitor Arantzabal > 04

**TURISMOA**  
Bailarako 21 mendi ibilaldi batzen  
dituen gida kaleratu dute > 06

**BERGARA**  
Hilerrian errautsendako  
kolonbarioak jarriko dituzte > 21

**ELGETA**  
Saihesbideko 2. faseko lanak  
lehiaketara atera dituzte > 29

POLITIKA > HUELGA OROKORRA

## Eragin handia izan du kalean eta txikiagoa lantegietan huelgak

**LANUZTEA** EAE eta EHAK alderdien jarduera-etetearen kontra protestatzeko deitu du greba ezker abertzaleak

**NORMALTASUNA** Eskoriatzan bidea moztu zuten goizaldean, baina gertaera larri bareko egun lasaia izan zen atzokoa

**KALE BILKURAK** Demokrazia eta independentzia aldarrikatu dituzte, herri nagusietan, manifestazio jendetuetan > 04

INGURUMENA > DEBA IBAIA

### Bergarakoa, lehen araztegia

Debagoienean lanean hasiko den lehen araztegia da; udaberrian hasiko da martxan > 05

## G2a

**Euskaltzaindiak  
gordeko du  
Olaso dorreko  
ondare  
bibliografikoa**

Lankidetza hitzarmena sinatu dute Bergarako Olaso Dorrea Fundazioak eta Euskaltzaindiak. Hitzarmenaren ondorioz, fundazioaren ondare bibliografiko eta artxibistiko Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko dute aurrerantzean. Hala, akademiak bere gain hartzen du ondare horren kontserbazioa eta katalogazioa. Guztira 1.930 liburu dira eta, besteak beste, Leizaragaren *Testamentu Berria*-ren (1571. urtea) bi ale daude. Hitzarmena sinatu zuten Olaso dorrean, Telesforo Monzon-en etxearen. > 35-36



ORDKEZKARIAK Andres Urrutia Euskaltzaindiako lehendakariak eta Jose Luis Elkoro Olaso Dorrea Fundazioko lehendakariak sinatu zuten hitzarmena. A.A.

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10  
Gutunak > 11  
Herriak > 16-31  
Kirola > 32-33  
Kultura > 37  
Sailkatuak > 38  
Eskelak > 49  
Denbora-pasa > 40  
Gazteak > 42  
Komunikazioa > 43  
Telebista-Irratia > 44  
Non-zer > 46-47

**Etorkizuna  
zure eskura**

**Udalaitz**  
Gipuzkoako etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**ERAOKUSKETA:**  
Ignazio Zuloaga 4 ARRASATE  
Tel./faxa: 943 79 07 20  
omu@telefonica.net

UDALTZAINGOA &gt; UNIFORMEAK

# Udaltzainek jantzi bera izan dezakete hemendik gutxira

**DISEINUA** Jantzi bateratuaren diseinua guztiz amaitu barik, dagoeneko zenbait ideiatan ados jarri dira Eusko Jaurlaritza, Eudel eta udaltzaingoak

**MIRIAN BITERI > BERGARA**  
Eusko Jaurlaritzak eta Eudelek Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzain guztiak berdin jantzia joatea nahi dute. Horrek esan nahi du Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udaltzainak uniforme berarekin joan daitzkeela jantzia hemendik gutxira, herri bakotzeko udalak horrela onartzan baldin badu, jantzia erabiltzea ez da-eta derri-gorrekoia izango.



Bergara

Udaltzainen artean zabalduen dagoen jantziarekin doaz

Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan antzera jantzen dira. Praka urdinak eta txamarra ere kolore berekoa eramatene dute Bergaran. Europar Batasunak hala gomendatuta, jantziengoa partea hori fluoreszentea da. Orain dela gutxi aldatu zitzuten jantziak; lehen, alkandora urdin argi kolorekoa zen.



Oñati

Txapela gorria jantzen dute, inguruko herri gehienetan moduan

Oñatiko Udaltzaingoak hamar kide ditu. Jose Antonio Vazquez horren burua da: "Praka urdinak eramatene ditugu eta polarra urdina eta hori fluoreszentea da. Atzean Udaltzaingoa jartzen du eta txapela inguruko herriean erabiltzen den modukoa da: gorria", azaldu du Vazquezek. Oñatiko ikurra ere eramaten dute.

**BOLUNTARIOA DA**  
Udaltzaingoa herri bakotzeko udalaren esku dago, eta, beraz, voluntarioa izango da adosten den uniformea eramatea

**DEBAGOIENA** Arrasaten izan ezik, ibarreko beste herrietan antzera jantzen dira udaltzainak: praka eta txaketa urdinak eta fluoreszentea

**Udaltzainen ikurra eguzki-lorea izatea nahi dute eta jantziengoa azaltzen den 'Udaltzaingo' hitza 'Polizia'-gatik aldatzea adostu dute lantaldekoek**

**Uniformeaz gain, komunikazio sistemaz eta udaltzainen kalifikazio profesionalaz ere badihardute Eusko Jaurlaritzak, Eudelek eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udaltzaingotako ordezkariek**

fluoreszentea, hobeto ikusi ahal izateko. Horrez gainera, gehienek txapela gorria eramaten dute Debagoienean.

**ARRASATEN, MOREA**  
Baina ibarrean bada salbuespena. Arrasate da uniforme baten eta besteen aldeen arteko adibiderik garbiena. Hango udaltzainen txaketa eta alkandora moreada, udalerriko ikurraren kolorekoia, zuriarekin batera.



Aretxabaleta

'Plater' moduan ezagutzen den txapela eramaten dute

Uniforme bateratuaren bidez herritarren artean nahasmenik ez izatea lortu nahi dela jakinarazi dute Eudeletik. Udaltzain guztiak berdin joango dira jantzia, eta, beraz, herritarrek ez dute haien identifikatzeko inolako arazorik izango.

Horretan diharduen lantalea dagoeneko ados jarri da uniforme bateratuaren gaineko hainbat kontutan. Hala, jantziak urdinak izango direla esan dute. Ohikoa den moduan, txaketaren goiko partea hori fluoreszente kolorekoia izango da. Lehen esan bezala, Europako araudiak hori erabiltzea gomendatzen du-eta.

**IKURRA, EGUZKILOREA**  
Udaltzaingoaren ikurra zein izango den ere erabakita dute lantalle dehorretako partaideek. Eguzkilorea aukeratu dute.

Udaltzainen buruan zer era man behar duten adostea, berriz, ez da batere samurra izango. Gurean, txapel gorria jantzen dute gehienek. Salbuespena Aretxabaletan aurkitzen dugu: han, *plater* izeneko txapela eramaten dute. Euskal Herriko beste hainbat txokotan, berriz, txapel berdea, urdina eta beltza ere erabiltzen dituzte.

Barakaldon, bestalde, txapel amerikarrarekin joaten dira. Eta azken horren aldeko ahotsak entzun izan dira esandako lantaledean. Alegia, batzuek nahi dute udaltzainek txapela amerikarra erabiltzea. Hala ere, esan bezala, oraindik zehazteke dago buruan zer jantzik duden.



Eskoriatza

Udaltzainen jantziengoa aldaketa ez litzateke askorik nabarituko

Aretxabaletan bost udaltzain daude. Martin Garai udaltzainburuak "dotore" joaten direla dio. Gehien erabiltzen den jantzia dute: zapata beltzak, praka eta txaketa urdina eta goiko aldean fluoreszentea. Txapela aldatzen da Aretxabaletan. *Plater* moduan ezagutzen den txapela dute, baina oso gutxitan daramate buruan.

Eskoriatzan bi udaltzain daude: Ibon Segura eta Iban Fernandez. Azken hori joan zen hilabetearen amaieraren sartu zen. Hango udaltzainek ez lukete askorik sumatuko jantziengoa aldaketa. Egun, zapata beltzak eta praka zein txaketa urdina jantzen dute. Goiko partea fluoreszentea da. Buruan txapel gorria eramaten dute.



BERGARAKO UDALTZAINAK. Bergarako Udaltzaingoan 2006. urtean aldatu zituzten jantziak.

GOIENKARIA

Aldaketak ez dira hor amaitzen, baina. Jantziek, orain arte, *Udaltzaingoa* hitza eraman dute aurreko eta atzoko aldeetan. Hori desagertu egingo dela ematen du. Uniforme berriak *Polizia* hitza eramatea pentsatu dute lentaldea osatzen dutenek.

**IBARREKO UDALTZAINEN IRITZIA**  
Debagoieneko udaltzainek dagoeneko eman dute horren gainekeko iritzia. Orokorean, pozik azaldu dira uniforme bera izatearen idearekin. Oñatiako Jose Luis Vazquezek, esaterako, oso ondo ikusten du hori: "Horrelako zerbait behar da. Gaur egun ez dago batere zehaztuta, herri bakoitzak erabakitzentzu du-eta nola joan behar dugun jantzia", azaldu du.

Hurrekin batera, uniformean *Udaltzaingoa* hitza jarri beharrean *Polizia* jartzearekin ados dagoela gaineratu du. Debagoienean gero eta atzerriko gehiago daudela eta batzuek *udaltzaingo* hitzaren esanahia ez dutela ulerzen dio: "*Polizia* hitza internazionalagoa da, guztiek ulertzten dute hori", azpimarratu du Vazquezek.

Aretxabaletako Martin Garai-ri ere "oso ondo" iruditzen zaio guztiek uniforme bera eramatea. Bai-

na uste du jantzi berriak finantzatzeko laguntzak martxan jarri beharko direla: "Herri txiki batean agian ez du eragin handirik izango, baina, hiriburu baterako, esaterako, izugarrizko kostua izango da udaltzain guztien jantzia aldatzea", dio.

Eskoriatzako Ibon Segurak ere nahiago du guztiek berdin jantzia joatea: "Eskoriatzan orain ondo goaz jantzia, baina lehen, alkandora zuria genuenean, jendeak ez zekien udaltzainak edo autobus gidariak ginan", aipatu du. Arrasateko Jose Luis Etxebarriak azaldu duenez, Arrasaten jantzi berriak egitekotan daude eta udaltzainen segurtasuna handitzeko neurriak kontuan izango dira. Jantzi berriaren more kolorerik ez dela izango jakinarazi du. *Udaltzaingo* hitza eramango dute la ere esan du.

**DEBAGOIENEKO ALKATEAK**  
Ibarreko alkateek ere iritzia eman dute. Arrasateko alkate Ino Galparsorok uste du "herri bakoitzeko udaltzainak bereiztu behar direla, nork berea gorde behar du". Gainera, "gai importanteagoak" daudela ere adierazi du. Hala ere, segurtasun neutrrien gainean, iristen diren

gomendioak aztertzeko prest azaldu da Galparsoro. Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek ere ez dio ideia horri "zentzu handirik" ikusten. "Ez dut uste herri-tarren artean nahasmena sortzen duen zerbait denik, jarraian ezagutzen dira-eta udaltzainak".

Oñatiako alkate Lourdes Idoiagak, berri, ondo ikusten du uniforme bateratua izatea: "Udal bakoitzak ondo ikusten badu, udaltzainendako hobea bada eta eurek gura badute, ni horretan sartuko nintzake". Hala, jantzi berria "adostasunetik etorriko

dela eta udal bakoitzak daukan autonomia errespetatzen due-la", esan du.

#### TRETA KOMUNIKAZIO SISTEMA

Baina Idoiagak gaineratu nahi izan du horretan diharduten lantaldeek uniformea baino egitasmo gehiago azterzen ari direla. "Hau ez da bakarrik txapela edo gorra eramatea, proiektu orokor bat da, udalek eskatu dute-na, gainera".

Horren harira, Treta komunikazio digitaleko sistema homologatua izatea eta kalifikazio

profesionalaren gainean adosta-sunera iristeko beharra ikusten du Idoiagak.

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak, Eudelek eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udal-tzaingotako ordezkariek osatzen dituzte lantaldeak. Besteak beste, jantzi bateratuaz, komunikazio sistemaz eta soldaten kalifi-kazioaz jarduten dute batzar horietan. Lantalde horietatik ate-ratzen diren ondorioek Udaltzain-goen Koordinazio batzordetik pasa beharko dute; hark erabakiko du onartzen diren edo ez.

**SSANGYONG RODIUS BERRIA**

22.900 €-tik aurrera

MONOBOLUMENA 7 ESERLEKU  
ETA MALETATEGI IZUGARRIA

MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN  
270 XDI 165 ZP

**SSANGYONG**  
**VERTIZ MOTOR**

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA  
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE  
Tel.: 943 46 92 99

POLITIKA &gt; HUELGA OROKORRA

# Eragin handia kalean eta lantegietan gora beherak huelga orokorrean

Lan sektorearen eta herriaren araberako erantzuna izan zuen atzoko huelgak; gertaera larri gabeko egun lasaia izan zen orokorrean

A. ARANBURUZABALA > BERGARA  
EAE eta EHAK alderdien jardueraren etetearen aurka egiteko lanuzteak Debagoienean ere izan zuen eraginik, sektore eta herrien araberako erantzuna ezberdina izan baten ere.

Zerbitzuetan erantzun handia izan zuen huelgak: herriko denda, taberna, jatetxe eta banketxe gehienek ez zuten zabaldurera egin; denda handie dagokionez (Eroski, Super Amara), gehienek lan egin zuten. Lantegietako erantzunak gora beherak izan zituen, enpresa mota eta herriaren arabera: Arrasaten, besteak beste, Fagor taldeari dagokionez, bik izan ezik, gainontzeko-



GREBA Bergaran eguerdian egin zen kale agerraldia.

ENEKO AZKARATE

ek lan egin zuten. Bergarako lantegi gehienetan lan egin zuten, horien artean, Soraluce, Tavexedo Arceloren. Oñatin, bestalde, Ulma barruko enpresa gehienak,

baina ez guztiak, grebara joan ziren. Aretxabaletako Copreci, Antzuolako Goizper eta Eskoriazako Tesak, berriz, lan egin zuten. Hezkuntzan, goi mailako-

ek greba egin zuten, hezkuntza ertainekoak, eskolaren araberako erantzuna izan zuten. Udalei dagokionez, Elgetako eta Oñatiako salbu, gainontzeako greba

egin zuten. Goienako langileek ere bat egin zuten lanuztearekin. Pikete informatiboak izan baziren ere, orokorrean ez zen ger takari larririk izan. Eskoriatzan bidea moztu zuten goizaldean. Herri gehienetan mobilizazioak deitu zitzuten eguerdirako eta iluntzerako. Eguerdian LAB sindikatuak emandako datuen arabera, Arrasaten 1.500, Bergaran 900 eta Oñatin 500 lagunek hartu zuten parte.

## ASTEKO BILKURETAN MOZIOAK

Hiru herrian bozkatu dituzte astean, EAE eta EHAKren jarduera etetearen aurkako mozioak: Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan. Arrasaten, EAEk aurkeztutako mozioari EB-Zutik, Aralar eta EAren ekarpenekin egindako mozio bateratuak aurrera egin zuen. Mozio horretan, sei puntu tan, ilegalizazio prozesuaren kontra daudela adierazi zuten. Bergaran, udal gobernuak ilegalizazioaren aurka aurkeztutakoak, EAE eta Aralarren botoekin onartu zuten. Antzuolakoak, EAren botoekin egin zuen aurrera, (azken honetan) alkatearen kalitate botoari esker.

ATXIOKETAK &gt; EZKER ABERTZALEA

## Espetxera bidali ditu Garzon epaileak, Aitor Arantzabal eta Mikel Garaiondo bergararrak

Bergarako Udalbatzak, Aralar, EAJ eta EAren aldeko botoekin bi atxilotuak askatzeko mozioa onartu zuen asteluhenean egindako osoko bilkuran

MIREIA BIKUÑA > BERGARA  
Baltasar Garzon Espainiako Auztegi Nazionaleko epaileak asteluheneko sarekadan atxilotutako ezker abertzaleko 14 kideetatik 11 baldintzarik barik kartzelatzeko agindua eman zuen eguztenean.

Espetxera bidali dituenden artean daude Aitor Aranzabal eta Mikel Garaiondo bergararrak. Batasuneko Mahai Nazionala berregiteko ahaleginean aritza eta, ondorioz, ETAko kide edo laguntzai le izatea egotzi die.

**"LIBRE UTZ DITZATEN EXIJITZEA"**  
Atxiloteka horien harira, Bergarako udalbatzak asteluhenean egindako ezohiko osoko bilkura berezian, Aitor Arantzabal eta Mikel Garaiondo bergararrak eta atxilotutako

beste 12 euskal herritarra libre uzteko mozioa onartu zuten. EAren mozioak EAJ, Aralar eta EAren aldeko botoak jaso zituen; Alderdi Sozialistako zinegotzi biek aurka bozkatu zuten.

EAEk aurkeztutako mozioan, atxilotutako "14 euskal herritarrak berehala libre uzteko" eskaera egiten zen. Era berean, inkomunikatuta egon direnez, haien senideek atxilotuak non dauden jakin behar dutela aldarrakatzen zen. Gainera, atxilotuendako, "konfiantza osoko abokatuak" exijitzen zituzten.

Bestalde, mozioaren hirugarren puntuau, Arantzabali eta Garaiondori eta haien senideei elkartasuna adierazi "eta atxilotuaren jarraipena egiteko konpromisoa" hartzen zutela

azpimarratzen zen. Bukatzeko, Euskal Herriak bizi duen gatazkari "elkarritzetan eta demokrazian oinarritutako soluzioa" ematearen aldeko apustua egin zuten.

Gainera, EAEk aurkeztutako beste mozio bat ere onartu zuten asteluheneko bileran, Aralarren aldeko botoekin. Hain zuzen, EAE eta EHAK alderdien aurkako legez kanporatzearen kontrako mozioa.

## BESTE BI MOZIOAK, EZ

EAJk eta EAk elkarrekin eta Alderdi Sozialistak aurkeztutako mozioak, berriz, bertan behera geratu ziren. Jeltzaleen mozioak EAE eta sozialisten aurkako botoa jaso zuen eta PSE-EEren mozioak ez zuen beste inoren botorik jaso.

**MULTIOPTICAS**  
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN  
[www.multiopticaspizkua.com](http://www.multiopticaspizkua.com)

**bigarren betaurreko parea DOAN**

J. Carlos Guerra 1  
Tel. 943 79 29 95

Ibargarai 16  
Tel. 943 76 15 75

ARRASATE

C/ Nueva 15 - GROS  
Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta 2  
Tel. 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7  
Tel. 943 51 78 11

ERRENTERIA

Mendibil M. G.  
Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel. 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70

TOLOSA

Promozio balagarrria 08/01/07tik 08/02/29ra arte.

## ATENTATUA BERGARAN

# Udalbatzak ez du egin adierazpen bateraturik

Bergarako Udalean lau idatzi aurkeztu ziren, eta batek ere ez zuen aurrera egin

A.B./L.K. > BERGARA

Bergarako Udalbatzak ez zuen lortu joan den egubakoitzean epaitegiaren aurka egon zen atentatuaren gaineko adierazpen bateraturik. Astelehenean, ezohiko osoko bilkura egin zuten zinegotziek horretarako. Atentatuaren gaineko mozi bana aurkeztu zuten EAEk, Aralarrek, PSE-EEk eta EAJ eta EAk –bi hauet elkarrekin–. Bat ere ez zen onartu.

Jende asko joan zen udallexera, eta tentsio uneak egin ziren. EAE eta EHAKren ekinzen etetea eta 14 lagunen atxiloketa, tartean bi bergararrena, ere eztabaidatu ziren.

### IDATZIAK

EAJk eta EAk atentatua gaitzesten zuten euren idatzian, eta alderdi guztiak politikan parte hartzeko eskubidea dute-la esaten zuten. EAEk eta PSE-EEk aurka bozkatu zuten.

Gero, Alderdi Sozialistak aurkeztu zuen berea, atentatua gaitzesten. Idatziak bilkura ikusten zegoen jende askoren haserrea piztu zuen.

Aralarren idatziak atentatua gaitzesten zuen, eta EAE-ren eta EHAKren jarduerak etetea salatzen zuen. Aralarren eta EAren aldeko botoak bakarrik lortu zituen, eta EAJk, EAEk eta PSE-EEk aurka bozkatu zuten.

Eusko Abertzale Ekintzaren proposamenean, "testuinguru demokratiko" baten aldeko apustua egiten zen, eta epaitegiaren aurkako atentatua gatazka politikoaren ondorio zela esaten zen. Aralar abstainitu egin zen eta beste alderdiek aurka bozkatu zuten.

### BERROGEI SALAKETA

Bergarako epaitegia normal dabil lanean dagoeneko. Alboko atetik, San Pedro elizara begira dagoenek, sartzen da orain, sarrera nagusia konpondu artean; ez dakite noizko egongo den gertu.

Bestetik, Udala leherketak kaltetutakoekin batzartu zen zapatuan, eta zenbait laguntza mota eman zien; batik bat, salaketak Ertzaintzaren jartzeko modua azaldu zien. Oraingoz, 40 bat salaketa jaso ditu Ertzaintzak, etxebizitzei, dendei edo autoei egindako kalteen gaineakoak, tartean. Herrizaingo Sailak ez du kalteen kostuaren gaineko daturik eman.



BISITA Esther Larrañaga Ingurumen sailburua eta beste ordezkari batzuk, araztegia bisitatzen astelehenean. LEIRE KORTABARRIA

INGURUMENA > DEBA IBAIA

# Mekolaldeko araztegia udaberri bukaeran ipiniko dute martxan

Bergarako araztegiak Antzuolako eta Elgetako urak ere garbituko ditu, udaberrian hasita; orain, instalazioak probatzen dabilta

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA Mekolaldeko ur-araztegia, Bergara, Antzuola eta Elgetako hondakin-urak garbituko dituena, probatzen dabilta, eta hemendik "hiru edo lau hilabetera", udaberri bukaeran, lanean ipintzea espero du Eusko Jaurlaritzak. Hala esan zuen Esther Larrañaga Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak araztegira egin zuen bisitan, astelehenean.

Sailburuak eta araztegiaren arduradun batzuek araztegira bisita gidatua egin zuten, azpiegitura hori bukatuta dago-eta. Deba Erdialdeko araztegia da Mekolaldeko. Horrekin, Jaurlaritzak osatu du Gipuzkoako araztegi sare. Debagoieneko beste araztegia, Epeleko, Espaniako Gobernuak egingo du, eta Esther Larrañagak esan zuenez, 2010era-ko bukatuta egotea espero da.

### TEKNOLOGIA BERRIENAK

Mekolalde auzoko araztegiak 13.650.000 euroko kostua izan du. Instalazioak lokatzak tratatzeko hiru baltsa ditu eta, horiei esker, etorkizunean ur gehiago tratatu ahal izango da, biztanleria igo egiten bada edo industria berriak kokatzen badira. Horrez gain,

teknologia berrienak erabiliko ditu araztegiak urak tratatzeko fase guztietan.

Lanen barruan, Mekolalde baseria goitik behera berritu dute, eta han egongo da kontrol-

### ARAZTEGIA, DATUTAN

#### > POPULAZIOA

Bergara, Antzuola eta Elgetako hondakin-urak garbituko dira Mekolaldeko araztegian; hasieran, 40.000 biztanleria zerbitzua emango die, baina gehiagorendako gertu dago.

#### > INBERTSIOA

13.650.000 euroko kostua izan du Mekolaldeko araztegiak.

#### > LANAK

Araztegiaz gain, Mekolalde baseria berritu dute; handik kontrolatuko dute araztegia.

#### > SANEAMENDU SAREA

Debako eta Mutrikuko araztegiak martxan daude. Elgoibarkoak Mallabia, Ermua eta Soraluzei zerbitzue emango die etorkizunean; eta Epelekoa egiteko dago.

## > DEBAGOIENA Abortatzeko eskubidearen aldeko agerraldira joateko

Abortatzeko eskubidearen aldeko kale-agerraldirekin bat egiteko dei egin du Debagoieneko Bilgune Feministik. Bihar, zapatua, egingo dute agerraldia Iruñean, 17:30ean hasita, autobus geltokitik. Nafarroako osasun-gintza publikoan, guztiz galarrazita dago abortatzea.

## > ARRASATE Gazte Topagunea aurkeztuko dute gaur gaztetxeen

Gazte Topagunea 08 jaialdia aurkeztuko dute gaur, egubakoitzta, Arrasateko gaztetxeen. 18:30ean, jaiaren berri emango dute; gero, poteoa eta Arrano elkartean afamerienda izango dituzte. Gazte Topagunearen gaineko argibide gehiago dago [www.gaztetopagunea.net-en](http://www.gaztetopagunea.net-en).

## > BERGARA Lau lagun atxilotuta, autoen piezak lapurtu izana egotzita

Lau lagun atxilotu zituzten ertzainek domeka arratsaldean, ibilgailuak desegiteko Bergarako tailer baten lapurtu izana egotzita. Atxilotuak 18 eta 42 urte bitarteko lau gizonen dira, eta zazpi bateria eta bi alternadore atzeman zizkieten. Herriar batek abisatu zien ertzainei.



TURISMOA &gt; MENDI IBILALDIAK

# 'Oinez Debagoiena' ibarreko ibilaldien liburua aurkeztu dute

Ibarreko 21 mendi ibilaldi batu dituzte; baita hemengo ondare kulturala ere

Oraingo 3.000 ale argitaratu dituzte: 1.500 euskaraz eta beste 1.500 españolez

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE Debagoieneko Mankomunitateko turismo sailak *Oinez Debagoiena* liburua aurkeztu zuen martxean Kulturaren. Aurkezpenean izan ziren Ana Heriz Mankomunitateko turismo teknikaria eta turismo arduradun Oxel Erostarbe.

Gidat Debagoieneko herri guztiak 21 mendi ibilaldi jasotzen ditu; guztiak "adierazita daude eta Gipuzkoako Mendi Federazioak homologatuak dira", adierazi zuten arduradunek. Liburuan agertzen diren mendi ibilaldiak herrietako eragile eta elkarteen iritzia jaso ostean aukeztatu ditu Mankomunitateak.

#### ONDARE KULTURALA

Mendi ibilaldieei buruzko informazioa emateaz gain, baina, Debagoieneko ondare kulturalari buruzko azalpenak ere emanen dira beste atal batean: Erdi Aroa, elizateak, jauregi eta dorretxeak eta beste hainbat



AURKEZPENA Oxel Erostarbe eta Ana Heriz, Mankomunitateko ordezkariak, Kulturateko aurkezpenean.

TXOMIN MADINA

elementu sartzen dira atal horretan. Mendi ibilaldi horiek egun batean egiteko modukoak dira, baina ibarretik igarotzen diren edo bertan bukatzen diren beste zenbait ibilbide luze ere jasotzen ditu liburuak, gutxienez bi egunean egitekoak.

#### EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

2000. urtean jarri zuen martxan Debagoieneko Mankomunitateak ibarreko mendi ibilaldien sarearen proiektua. Liburua argitaratzeko, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Guztira 3.000 ale kaleratu dituzte: 1.500 euskaraz eta beste 1.500 españolez. Debagoieneko hainbat liburu dendatan egongo da eskuragarri liburua. Liburu bakoitzak 14 euro balio du; liburuarekin batera mapa bat ere banatuko dute.

## EAJko Kongresu eta Senaturako hautagaiek Oñati bisitatu zuten

EAJko ekitaldia egin zuen joan den zapatuan, otsailaren 9an, Oñatin. Bertan izan ziren Jose Ramon Beloki eta Josu Erkoreka, EAJren Gipuzkoako eta Bizkaiko hautagai-buruak, zerrendako gainerako hautagaiekin batera. Udaletxearen bisita laburra egin zuten, eta herriko alkate Lourdes Idoigak eta EAJko zinegotziek egin zieten harreraren ostean, ETEOran joan ziren, Ibarra eraiki behar duten unibertsitate eta zentro teknologikoaren proiektu ezagutzera. Proiektu hori alderdi jeltzaleak bultzatu zuen 2008ko aurrekontuen negoziazioetan, eta 2010rako bukatuta egotea espero dute.



GOIENKARIA

#### IKASKETAK

## Zortzi titulazio berri Muren eskutik

Hala, Europako Goi Mailako Hezkuntza Espazioa egokituko da unibertsitatea

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA Datorren irailetik aurrera, Mondragon Unibertsitatearen eskaintza akademikoa Europara egokituko da. Izan ere, 2008/09 ikasturtean, Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Espazioa egokitutako ingeniaritza eta enpresazientziei lotutako zortzi graduazio eskainiko ditu. Hain zuzen, Industriako Ingeniaritza eta Industria Teknologietako Ingeniaritza; Telekomunikazioetako Ingeniaritza; etab. Oinarritzko Teknologien Telekomunikazioetako Ingeniaritza; Ingeniaritza Mekanikoa; Industria Elektronikako eta Automatikako Ingeniaritza; Industria Antolamenduko Ingeniaritza; Informatikako Ingeniaritza; eta Industri Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza.

Eskaintza berriarekin, MU izango da Europako espazioa egokituko den lehen euskal unibertsitatea.

#### IRAKASKUNTZA

## Grebaren ondoren, lanuzte gehiago ez

Gorputz heziketako irakasleek eskolak emango dituzte berriro ere

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA Astelehenean gorputz heziketako irakasleek Gasteizen egindako grebaren ondoren, eskolak normaltasunet ematen dihardute. Bitartean, PPko ordezkariak aurkeztu duen helegitea onartuko ote den zain daude.

Alderdi Popularreko kideak aurkeztu duen ez-legezko proposamenak Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako aurreikusten duen ordu murriketa atzera bota dezake. Bozketa hori, seguruenera, otsaila bukatu aurretik egingo da.

GIZARTEA > MUNDUKIDE FUNDAZIOA

# Mozambiqueko gobernu ordezkaritza gurean

Mundukide Fundazioak gonbidatuta Niassa probintziako gobernu ordezkaritza dago gurean

Helburua da harremanak sendotzea eta nekazari eta enpresa garapen esperientziak ezagutzea

JASONE ZABALA > BERGARA  
Joan den otsailaren 12a ezkerro eta otsailaren 17ra arte, Mozambiqueko Niassako gobernu probintziako ordezkaritza bat dago gure artean, Mundukidek gonbidatuta.

Ordezkaritza maila politiko handikoa da. Etorri direnen artean, Niassako gobernadore Arnaldo Zipsa –autonomia erkidego bateko lehendakariaren parekoa– eta ekonomia eta lan zuzendari probintzialak –sailburuen parekoak– daude.

**BISITAREN ZERGATIA**  
Mundukide Fundazioa 2002. urtean hasi zen Mozambiqueko Marrupa herrian kooperazio lanetan. Mozambique munduko herrialdeko behartsueta koa da eta iparraldeko Niassa probintzia, berriz –han dago Marrupa herria–, herrialdeko lekurik isolatuena koa. Urte hauetan, Mundukidek 2.000.000 eurotik gora inbertitu ditu Marrupan. 2007 urtean, Mundukidek Mozambiken izaera juridiko propioa lortu zuen, eta ordutik hona, Mozambiqueko administrazio ezberdinakin elkar ezagutza eta lankidetza harremanak sendotzeko prozesuan dabil.

**HELBURUAK BI DIRA**  
Lankidetza eta ezagutza hori dela eta, Niassako gobernu probintziako ordezkaritzak gure artera egindako bisitaren helburuak bi dira: alde batetik, Mundukideren eta Niassako gobernuaren arteko

rientzia desberdinak ezagutzea. Lehen helburu horren barruan, zenbait bilera eta bisita egingo dituzte, hala nola Mundukidearen eta ordezkaritzaren arteko bilerak eta Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetza zuzendaritzara eta Arrasateko kooperatibetara bisitak.

Bigarren helburuaren barruan, ordezkaritzak hainbat bisita egingo ditu, bai nekazari, baita enpresa sustapen arloetan. Nekazari arloari dagokionez,



ORDEZKARITZA Arnaldo Zipsa (ezkerretik bigarrena) beste ordezkariekin. MUNDUKIDE

Itsasmendikoi, Arkauteko nekazari eskola eta Abelur nekazari kooperatiba bisitatuko dituzte. Enpresa sustapenaren inguruan, berriz, Eusko Jaurlaritzako Gizarra Ekonomia Saila, SPRI, Gaztempresa-Bultz-Lan, Urola Lanbide Heziketa Ikastola eta Ederlan industria kooperatiba.

Mundukideko arduradunen arabera, "hainbat gai gizarteratzeko aukera ezin hobea da hau. Hala, Niassako gobernu ordezkaritza eta Marrupa programako koordinatzailearen presentzia aukera ederra da Marrupan eta orokorrean Afrikan bizi den egoera ezagutzen emateko, garapenerako lankidetza programek duten zaitasuna eta garrantzia azpimarratzeko, baita hainbat lagun etorkizun hoberako bidean laguntzeko egin daitezkeen lanen berri emateko."

**GOBERNADOREAREN HITZAK**  
Niassako Arnaldo Zipsa gobernadorearen hitzetan: "Egin dugun bidaia honen helburua Mundukide Fundazioa osatzen duten pertsonak ezagutzea da, eta haiek batera daramagun lankidetzen jatorria ezagutu, kooperatiba munduari dagokionez eta baita finantza iturriei dagokienez".

## Botoa postaz bideratzeko informazioa

**ARRASATEKO BATZOKIA**  
943 79 63 69 / 943 79 07 90

**ARETXABAleta**  
616 75 85 99 / 620 68 62 19

**ANTZUOLA**  
943 76 60 61

**ESKORIATZA**  
626 26 48 98

**ELGETA**  
943 76 81 47

**OÑATIKO BATZOKIA**  
943 78 01 17

**BERGARAKO BATZOKIA**  
943 76 47 00

**Eskaeretarako  
azken eguna:  
OTSAILAK 28**



[www.eaj-pnv.eu](http://www.eaj-pnv.eu)

AZPIEGITURAK > GIPUZKOAKO ERREPIDE-TARTE ARRISKUTSUENAK

# Ibarreko hiru, errepide arriskutsuenen artean

Oñatiko bi errepide-tarte eta Arrasateko eta Eskoriatzako bana dira Gipuzkoako errepide tarte arriskutsuenen artean daudenak

JASONE ZABALA > BERGARA  
Eusko Jaurlaritzako barne sailak emandako azken datuen arabera, Gipuzkoan 25 errepide gune arriskutsu daude. Hala, arriskuaren araberako bosgarren mailan daude. Istripuak iza-

ten diren guneak, berriz, 194 dira. Datuok 2002-2006 aldiari dagozkio. Gune arriskutsuak dituzten errepideen artean, bada Debagoineko zatirik. Hala, Oñatin, GI-2630 errepidean, bi puntu beltz daude: Garibai eta Zubillaga

auzoen artean, hain zuzen. Ibarreko beste gune beltz bat Arrasateko Meatzerreka auzoan dago, GI-3551 errepidean, bigarren kilometroan. Ibarreko azken gune beltza Eskoriatzan dago; zehazki, Mazmela auzoan, GI-3310 erre-

pidean, bigarren kilometroan. Gipuzkoan, kostako errepidea (N-634) da dauden 25 puntu arriskutsuetatik gehien batzen dituen, guztira zazpi.

Emaitzok, 2001-2005 urte artekoak baino pixka bat hobeak direla ere jasotzen du barne Sialak egindako txostenak, izan ere, hamar puntu beltz gehiago ziren orduan.

**KOSTAN ARRISKU HANDIEN**  
Kostako errepide arriskutsueen artean, Donostia-Santander errepide zatia dago, dauden 25 puntu arriskutsuetatik, zazpi bertan baitaude. Bide tarte horren jarraituz, hori da istripu gune gehien dituen errepidea, guztira, 35 daude, Barne Sailaren arabera. Horren adibide, N-634an, Mendaroko Azpilgoeta eta

Saratzuko auzoen arteko errepidea. Bertan, Mendarori dagoen bide zatian, azken bost urteetan 28 istripu izan dira. Puntu beltz ugari izaten den beste errepide bat A-8a da (Bilbo-Behobia). Bertan istripuak izaten diren 33 gune daude. Besteak beste, Amara auzokoa eta Zumaiak, Mendaro eta Usurbil herrietakoak. Hala eta guztiz ere, kontu gehien izan behar den errepide gunea GI-3631ko lehen kilometroak jarraitzen du izaten, Oiartzunetik Artikutzaraino doana.

Esandako horrekin, Gipuzkoako errepideen egoera ez da oso itxaropentsua: nahiz eta istripuak izaten diren guneen kopuruak behera egin, tarte arriskutsuetan ez da hala izan, eta istripuek gora egin dute azken urteetan.

**gure artekoak**

**RENAULT KANGOO** > Renault etxeak Kangoo modeloaren bigarren belaunaldiko automobia aurkeztu berri du. Arrasateko Autoberri Renault kontzesionarioko Kontxi Etxeberriak erakutsi digu automobil berria.

Kontxi Etxeberria > Autoberri kontzesionarioko arduraduna

## "Renault etxeak bereziki zaintzen ditu CO2 isurketak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Hilabete honetan bertan aurkeztu dute merkatuan Kangoo berria. Lehengoarekin alderatuz, zerbait handiago da oraino modelo berria eta, motor hobea dauka. Oraingo Kangoo-a Scenik modeloaren plataforman oinarrituta dago.

Bi berezitasun aipagarri ditu autoak: batetik, hegaletik jotzen duen haizeari erresistentzia handiagoa dio oraino modeloak eta, bestetik, gurpilen eta zoruaren arteko itsaspena handiago da.

### AUTOMOBIL EKOLOGIKOA

Europatik bultzatutako Eco2 ekinmenaren baitan hartutako erabakiak errespetatzen ditu Renault etxeak. Hala, CO2 isurketa txikiak direla-eta, matrikulazio zerzagak ordaindu beharrik ez dauka Renault Kangoo modeloak. Aipatu, CO2 isurketa txikienetan sailkapenean lehenengo postuan dagoela Renault etxea.

Bestalde, Renault autoen plastikoen %5a berrerabilitako plastikoarekin eginda dago. Eta, autoren piezen %95a berriro erabilizko modukoak dira. "Hori dela-eta, asegurua merkeagoa izaten da auto modelo hauetan", gaineratu du Kontxi Etxeberria Autoberri etxeak arduradunak ekologiaz berba egitean.



Aintzane Urrutia eta Txaro Cifuentes Autoberriko langileak.

A.E.

### Renault Kangoo 1.5 DCI 85 ZP

Prezioa	15.884 euro
Luzera	4,21 metro
Zabalera	2,13 metro
Maletategia	660 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	5,3 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	158 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	16 seg.
CO2 isurketak	140 g/km

(1) Gehienezko edukiera

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta

(3) Gehienezko abiadura

### BOST MOTOR AUKERAN

Gasolinazko motor bakarra dago aukeran: 1.6 16V 105 ZP. Dieselzko motorrak, berriz, aukera zabalagoa eskaintzen du: 1.5 dCI 70 ZP, 1.5 dCI 85 ZP eta 1.5 dCI 105 ZP. 70 eta 105 zaldi potentziako autoek ez dute matrikulazio zerzagik ordaindu behar.

Bost ate dauka Kangoo-ak, baina, atzeko aterako bi modelo daude aukeran: gorantz zabalten dena edo aldamenetara zabaltzen diren bi ateduna. Gainera, barrualdea norberaren gustura egokitutako daiteke. Bost aulkia edo aulkia bakarra jar daiteke.

**begi-bistan**

**Ama Birjinaren kristala apurtuta dago (Oñati)  
2008/02/13**

Argazkia: Mireia Bikuña.

Testua: Mireia Bikuña.

Bakardade kaleko 13. zenbakiko lanak bukatuta, fatxadan zegoen txokoan Ama Birjinaren irudia jarri zuten iaz. Dena dela, badira hilabete batzuk kristala apurtuta dagoela.

### Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

**etxeko leihotik**

Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

## Informazioa herritarrei eta hauen ekarpenak

Etorizunerako asmoak herritarrekin konpartitzen dabil Bergarako Udala. Batzarra egiten dihardu herritar taldeekin eta otsailaren 22rako batzar irekia deitu du: bergarar guztiak daude gonbidatuta. Egoki iruditzen zait egitasmo estrategikoak herritarrei jakinaraztea eta hauen iritzi eta proposamenak aintzat hartzea.

Herriaren egoeraren eta etorkizuneko erronken gainean udal gobernuak egindako diagnostikoa ezagutzen dut eta, oro har, bat nator. Ondo iruditzen zaizkit, esaterako, proposatu diren irtenbideak auditorioaren dako, edota Aranzadi ikastolak eta San Martin ikastetxeak dituzten instalazio arazoa konpontzeko.

Herritarren iritzi eta ekarpenen gainean nabilez, hona hemen nire proposamena Udalari zuzendua: egin dezala plan bat herriko parke publikoen gainekoa, Usondo eta Errotalde ez ezik Arrizuriaga eta Errekalde ere herritarrei zabaltzeko; zehatz dezala erabilera arautegia; berritu —Errotalde penagarri dago— edo txukundu ditzala parkeok...; eta, mesedez, ken ditzala hormatzarrak —sasoi bateko jauntxo-en palazioen harresiak— parkeak kalearekin integratzeko.

> **Latza** izan da azken astea, bizi dugun egoera-ren isipili: Bergarako epaitegiaren aurkako erasoa, ezker abertzaleko bergarar bi kideren atxilotaka eta kartelaraztea... Onartezinak biak. Panorama iluna.

> **'Egunkaria'** auziagatik ere ezkor naiz, azkenaldian Espaniako Estatuak darabilen jokabide erasokor, lotsagarri eta demokratiaren aurkakoagatik. 5 urte datorren astean Egunkaria itxi zutela.

**izen propioak**

**Mari Sol Ramos**  
KORRIKALARIA



**Iñaki Galdos**  
EA-KO GIPUZKOAKO PRESIDENTEA



**German Muruamendiaraz**  
SUKAL LEKUKO ZUZ.

Oñatiko korrikalaria bigarren sailkantu zen Lloret de Mar-en jokatutako beteranoen Espainiako kros txapelketan. Era berean, Amurrian jokatutako Euskadiko kros txapelketan, Yeray Varela oñatiarra hirugarren sailkatu zen promes mailan.

Iñaki Galdos EA-KO Gipuzkoako presidente aukeratu dute berriro ere. Zarautzen egindako batzarrean, Mikel Santagoren hautagaitza bertan behera geratu zen. Zerrenda hartan, idazkaritzarako hautagaia Amaia Larrañaga arrasatearra zen.

Bergarako Udaleko EA-Jko zinegotzia Sukal Leku gastronomia ikerketa zentroko zuzendaria ere bada. Otsailaren 7an inauguratu zen zentroa eta han egon ziren Debagoineneko hainbat sukaldari, besteak beste, Oñatiko Zelai Zabal jabetxeko Alberto Elortza.

Aralarreko koordinatzaile Patxi Zabaleta Aretxabaletan izan zen eguztenean, *Euskal Herri-*

*ko hamaika erronkakizenburuko hitzaldia eskaintzen. Azken egunotako gertakarien gaine-*

*ko iritzia eman digu nafarrak. Horrez gain, datorren martxoaren 9ko hauteskundeei begi-*

*ra, bere alderdiaren zein gai-nontzeo talde politikoen gai-neko hausnarketa ere egin du.*

Patxi Zabaleta > Aralarreko koordinatzaile orokorra

# "Aljeria eta Lizarra-Garazi bezalako bake prozesuak amaitu egin dira"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Patxi Zabaleta Aralarreko koordinatzailea da. Gaur egungo egoera politikoa "txarra" dela uste du eta irtenbidea "eskubide guztien defentsatik" bilatu beharra dagoela adierazi du.

Azken egunotako gertakarietaz galdu behar dizut lehenik eta behin. EHAK eta EAE-ren jarduera eten dute auzitegiak. Nola ikusten duzu erabaki hori?

Oso gai. Demokratikoki ez du oinarririk. Eskubide zibilak eta politikoak murritztea atzerakada da. Horrek ez du gizartea behar duen bake eta lasaitasunaren aldeko urratsik ematen eta, beraz, gaur egungo egoera txarra da. Irtenbidea eskubide guztien defentsatik bilatu beharra dago, hori da-eta gizarteak nahi duena eta politikarioek egiten saiatu behar duguna.

Nola baloratzen duzu gertatzen ari den guztia hauteskundeen atarian egitea?

Negargaria da. Egia da egoera honen aurrean, erantzule bat baino gehiago dagoela. Baina, Zapateroren Gobernua da azkeneko erantzulea. Legedia erabilten ari da helburu elektoralen-gatik. Hori tamalgarria eta gaitzesteko da.

Joan zen egubakotzean, bes-talde, leherketa izan zen Bergarako epaitegian. Zer iritzi duzu horren gainean?

Horrek ere ez dio inolaz ere laguntzen, beharrezko den bake-gintzari. Euskal Herriaren etorkizunaren aurka doa eta zehazkiago esatearren, ezker abertzale osoari kalte egiten dio. Giza eskubideak, zalantza eta salbuespenik barik, defendatu behar direla esaten diegu aldeei, zilegitasunez eskubide politiko eta zibilak defendatu ahal izateko. Bestalde, eskubide politiko eta zibilak ere defendatu behar dira, giza eskubideak defendatz gero.

Nora eraman gaitzake egoera honek?

Zurrumbilo batean sartuta gaude. Hortik irteteko ETA era-kundeari iniziatiiba hartzeko esku-tu behar zaio. Borroka armatua behin betiko utzi behar du, inolako ordainketarik eta baldintzarik gabe. Horrek bakarrik elkarri-zketarako bidea irekiko luke. Ondo-ren, herri honek izango luke indarra aurrera egiteko.



Goiko irudian, Aralarreko koordinatzaile Patxi Zabaleta.

GOIENKARIA

PSOE-REN JARRERA

**"Ez da bidezkoa Estatuko legedia erabiltzea hauteskundeen atarian. Hori demokraziaren kontra doa"**

Horretatik PSOEk etekina ate-rako duela uste al duzu?

Dagoeneko ari da etekina ateratzen. Baina ez du bakarrik horretatik etekina ateratzen. Gallardon ez zutenean PPren zerrendetan sartu etekina atera-zuen, baita Espainiako Apezpi-ku-Konferentziak, PPren bozka

ETA-REN EKIMENAK

**"Bergaran izandako leherketa Euskal Herriaren etorkizunaren eta ezker abertzale osoaren aurka doa"**

eskatu zuenean ere. Horretaz guztiaz aprobetxatu da Zapatero. Etekin horiek ateratzea bidezko da. Baina bidezko ez dena da Estatuko legedia erabiltzea, hauteskundeen atarian elkarri-zketaren kontra egiteko eta alderdiak legez kanpo uzteko. Hori demokraziaren kontra doa.

IRTENBIDEA

**"ETAK borroka armatua behin betiko utzi behar du, inolako ordainketarik eta baldintzarik gabe"**

Eliza aipatu duzu. Hauteskundeen aurrean bere iritzia plazaratu behar du? Ez dut eliza zehazki aipatu, Espainiako Apezpiku-Konferentzia aipatu dut. Eliza, berez, anitz da eta anitzasun hori defendatu beharko luke, erlijio askatasuna defendatzen duen neurrian.

Beraz, elizak ezin du adierazi behar botaketa baten zentzua. Iritzi erlijioso eta politiko ezberdinak daude eta onartu behar dira.

**Zein da Aralarren mezua, datoren martxoaren 9ko hauteskundeei begira?**

Lau oinarri nagusi ditugu. Lehenengo da eskubide guztien defentsa: giza eskubideak eta eskubide politikoak. Bigarrenik, Euskal Herriak erabakitzeko ahalmena du eta eskubide hori defendatu behar dugu. Hori ez da soilik hauteskundeetan egin behar.

Hirugarren oinarria da ezke-reko politiken gaineakoa. Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan, gehiengo zabal bat aurrerakoia dela, ezke-reko balioen aldekoa dela. Horrek ordezkapena izan behar du etorkizuneko irudi politikoan. Laugarrena bakea da. Herri honen bakea behar eta nahi du eta beraz, politikarioi agindu egiten digu bakearen alde egin dezagun. Horretarako, gogor jokatuko dugu, hitzaren eta politiken bidez.

**Nafarroan gauzak alda daitez-keela uste duzu, martxoaren 9aren ostean?**


Bai, Nafarroa Bai bigarren indar moduan mantentzen baldin bada. Nafarroan aldaketa bul-tzatzen duen eta aldaketa eragin dezakeen mugimendua da. Nafarroa Bai-k aurrera egiten baldin badu, alderdi sozialistakoei dei-tu beharko diegu, elkarrikete-kin berriro hasteko eta orain dugu eskuin muturreko gober-nua aldatzen hasteko.

**Zeinek irabaziko ditu hauteskundeak?**

Espainia mailan, alderdi sozialistak irabaziko dituela uste dut. Hori hala izango da PP egiten ari den hutsegiteengatik. Nafarroan, Nafarroa Bai sartuko da lehian UPNrekin. Hala eta guztiz ere, ezin izango diogu UPN-ri irabazi. Euskal Autonomi Erkidegoan, Aralarrek Gipuzkoan puntuatu nahiko luke. Erkidego horrek astindua behar du.

**Amaitzeko, beste bake proze-su bat posible ikusten duzu hurrengo legealdian?**

Ez. Aljeria eta Lizarra-Garazi bezalako bake prozesuak amaitu dira. Orain arte ezagutu ditugun ereduendako baldintzak apurtu dira, ez da horrelakorik errepikatu. Bakea ETaren alde bakarreko iniziatiibatik bilatu behar da.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

## Euskaldunak munduan

**E**uskaldunak munduan ez dugu parerik..." hasten zan kanta zaharra. Izan be, geure ustez ez gara makalak. Baiña hortik zihar ibiltzia tokatzen bajatzu, belaxe konturatzan zara zenbateraino garen ezagunak Euskal Herrixa eta euskaldunak.

"Nungua zara" izaten da egiten dotsuen lelengo pregunta, askotan erantzun biharrekua. "Basque Country". "Zela? Zer esan dozu?". Eta esplikaziñuak emoten hasten zara: European dagola, baiña Geografia nota onak etaratzen zittuan berak eta mapan ez zan agertzen holakorik; Frantzia eta España artian dagola (España berbia ebitau nahi izan ezkerro, lan txarra), eta hola azkenerako kokatzen gaitue gutxi gora behera.

Gero ia Barzelona gure herrikan dagon. Mundu guztiak ezagutzen dau Barzelona: Ronaldinho, Messi eta Olinpiadak. Futbola da Jaongoikua munduan. Eskolako mutil korearrak, estate baterako, Getafeko portero supletia be ezagutzen zeben, eta neska bat entzun nonsan esaten beretza munduko multilik guapuena Iker Casillas dala.

San Sebastian, Bilbao... jarraitzen dozu amua botatzen. "Ah, Bilbao, Atletic Bilbao, Urzaiz, very good buruz errematatzen". "Yes".

Hala eta be badira banaka batzuk Bilboko museo famaua ezagutzen dabenak, edo eta erakunde armatua, nahiz eta bigarren hau leku gehixenetan ez dan presentaziño kartarik onena. Ah, eta euskeria, osteria, esistitzen danik be ez.

Gutxi gara euskaldunak. Hiru milioi, edo bakarra, hiztunak kontuan hartu ezkerro. Gaurko munduan hizkuntza eta herri indartsuen gero eta menpeago gare. Hala eta be, guri gutxi importa. Gu jota ke, alkarri muturra apurtu arte.

Euskaldunak munduan ez dugu parerik.

### "Mundu guztiak ezagutzen dau Barzelona: Ronaldinho, Messi eta Olinpiadak"

### "Gaurko munduan hizkuntza eta herri indartsuen gero eta menpeago gare"

**HAUTESKUNDE-MAHAIRA EZ AZALTZEAREN ONDORIOAK**  
**Asteon hauteskunde-mahaia osatzeko bozketak egin dituzte Deba-goieneko udaletan. Zerrendok Hauteskunde-batzordera ere bida li dituzte, eta datozen egunetan iritsiko zaie jakinarazpena herritarei. Hori horrela, irakurle batek zera galdu digu aste honetan: Zer gerta dakioke hauteskunde egunean mahaian egotea egokitu eta agertzen ez den herritarri?**

Hauteskunde-mahaietako kideek hainbat betebehar eta eskubide dituzte. Mahaibakoitzean hiru kide daude: mahaiburua eta bi mahaikide. Horietako bakoitzak bi ordezko ditu eta ordezkoek ere hauteslekura agertu beharra dute; baina, titularrak etorri gero, alde egin dezakete.

Kargu horiek nahitaezkoak dira eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 143. artikuluaren arabera, hauteskunde-mahaietako kide izendatutako herritarra hauteskundeen egunean euren eginbeharra betetzera ez agertzea hauteskunde delitua da.

Hain zuzen, bere eginkizunak betetzera agertzen ez den mahai-buru, mahaikide edo ordezkoari 14 eta 30 egun bitarteko askatasun gabetza ezarri ahal zaio – etxe barruko arrestatzae.

Horrez gain, bi eta hamar hilabete bitarteko isuna ere ezarri ahal zaio. Isun hori, eguneko, 2 eta 400 euro bitartekoia izan daitekeela zehazten du Kode Penalak.

Esandako neurriak ezartzeko orduan, kontuan hartuko dituz-

**Galdera egiteko:**  
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:  

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

te hauteskunde-mahaian agertu ez izanaren arrazoia eta ahalmen ekonomikoa.

Bestalde, mahaian egotea tokatu zaien herritarrek datzen egunetan jasoko dute jakinarrapen hori eta epe bat izango dute –jakinarrapenean zehazten da epea– salbuetsita geratu nahi baldin badute, behintzat, horretarako arrazoiaik Hauteskunde-batzordera helarazteko.

ANTZUOLAKO ANBULATORIOA NORMAL ARI DA?

**Horixe galdu digu antzuolar batek. Kontua da sutea izan zela aste bukaeran eta hori dela-eta jakin nahi du ea normal diharduten lanean.**

Bada, bai. Astelehenean larrialdiak bakarrik atenditu bazituzten ere, dagoeneko normaltasunez dihardute lanean. Hortaz, ohiko zerbitzuak ematen dihardute.

Joan den domekan, 21:00etan, piztu zen sua anbulatorio kanpoan eta horrek hainbat kalte era-gin ditu eraikinean. Gutxienez hilabete beharko da kalteak erabat konpontzeko.

## marrakiz

Unai Busturia

SAKONTASUNEZ GARATUTAKO ALARMA SISTEMA



## Goienkaria

**Argiratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendarri nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Aitziber Aranburu (G2a), Xabi Urtezai (Kirola), Alex Azkarate (Disenua), Mireia Larraga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arribitx Barruso, Jasoene Zabala, Mireia Bikuiña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirrezaide **Oinarrizko disenuna** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larraga, Amaia Mundifano, Zortzka Martin, Iñaki Berezibar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOIZTA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goina.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goina.com

**ARETXABAleta** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goina.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09

Posta-e: publi@goina.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goina.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Arretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala




Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

irudi hura: Joan Mari Torrealda, noiz pauso huts jausiko, zeramateneko.

Are estonatuago, ordea, gaizkile handi arriskutsuenetako hauetakoren bat libratzean, nolaz ez duten eskena txukun zaintzen: zazpi kamerei abisua eman eta, ahalik eta egun argienez, denen begiradapean, etxe atarira, eskulibre eta solte ekarri, irrifarka, lagunei eskuak estutuz, auzokideen txalo eta bendizioen artean. Hala eginez gero, ez lukete zertan lotsa, ez zertan mozorro beharrik, eramatean legez, hainbesteko txano beltz beldur-garriak ahaztuko otsailaren 20ko

kameren argazkia, behin eta berri, emango luteke Teleberri nahi Telediarrioetatik.

Beste hainbeste, hala dirudit behinikbehin, gure txapelgorriek ere, kartzela utzi eta etxeratu denari, auzokoen txaloak eta aurreskuak bakean hartzen utziko balie. Behingoz jendearen txaloak igoal jasoko zituzten, txistu ordez. Aspaldian ikusi dudan argazki itsusiena datorkit gogora (egia esan, ez da gehiegiz saldu): aurreskua dantzatzen ari den neskatoa trabatu eta lurrean, ertzainaren oinetan... lastima, orduan ere kamerei abisua pasa ez izana... ez zen Bilbotik urrun, baina.

## Argazkiak ei daki

**Pello Zabala**  
berria.info/blogak/pellozabala

**E**stonatzeko, gero eta gutiago, nonbait, irudien eta argazkien mende honetan. Erreparoa eman izan dit beti argazki kameraren begitikki oroikusleak. (...)

Estonatu, halere, gauerditik aurrera, gaizkile gaiztoen saldu asmoz, horrenbeste kameren aurrean, euskaldun biztanle arrunta, zamarrapean burumakur daramatenean. Bat gordezen hasita, ez dugu berehalakoan ahaztuko otsailaren 20ko

## Duintasunagatik ez bada ere

Gotzon Iparragirre  
Antzuola

Badira ja eguntxo batzuk zur eta lur utzi ninduten Realeko presidentearen adierazpen batzuk ETBn entzun nituela. Egia esan behar badut, egun hauek, Realeko jokalariek edota bortxaketaren bat jasandako biktimen elkartea edo eurekin afinitatea izan dezakeen kolektiboren batek zerbaite esango ote zuen zain egon naiz. Ez dudanez inongo mugimendurik sumatu, nik neuk idazte pentsatu dut. Bereari tingo eusteko asmoz, aspaldi honetan beste alor batzuetan hain ezagun egiten zaigun bestearen deskalifikaziora jo nahi izan zuen, bere ahuldadea besterik ez zuelarik laga ageri-agerian. Hala pasako zen oraingoan ere esan zituenen larritasunagatik ez balitz.

Adierazpenotan, Oliva entrenatzalea Realera ez etortzea defendatzeko, etorri gero, igual jokalariek lau aldz bortxatuko zuketela esatera ausartu zen presidente; ausartu diot, ausardia behar baita hori esatera iristeko. Badirudi bortxatu izan dituzten hainbat emakumek bazute la euren curriculumean merituren bat bortxatuak izatea justifika zeza. Gaur egun hain hedatua den "zerbaite egingo zuen". Ez dakit Realeko presidenteak alabarik daukan ala ez, nik bai bat, eta ez nuke sekula santan halako komentariorik onartuko inoiz inork halakorik egingo balio. Ez dakit zer pentsatuko zuten adierazpenok irakurtzean bortxaketa baten esperientzia latzetik pasa direnak.

Bestalde, ez dut ulertzen zer egiten duzuen Realeko jokalariok isilik. Zeuon presidenteak bortxatzaile potentzialtzat jo zaituzte, zurikerietan ibili zaitezke, baina hala da, eta zuek, amen. Bada duintasuna deitzen den zerbaite, eta horrek ez omen du (zuen) preziorki.

Eta beldurra bada lotzen zaituena, bida indar handia duen beste zerbaite: kolektiboen indarra. Laga bakarkako adierazpenak, eta jo taldeko adierazpen formal batera. Ordaintzen dizuetenak edozer gauza esateko eskubiderik ez dauka, horretarako beta zuen isiltasunaz ematen ez badiozue behinik behin.

Luzera, zeuon mesederako izango da zalantza izpirik gabe, eta dudarik ez, presidentearen mesedetarako, kokatu behar puntu bat bidauka eta. Oste-rantzean, edozein astakeria entzuteko prestatzan joan zaitezke. Oraindik, igual garaiz zaude. Duintasunagatik ez bada ere.

## Davos-i ez, beste mundu bat posiblea da

Maitane Igartua  
(Zero Pobreza plataforma)  
Arrasate

Zer gertatu da Davos-en gauzatu den Mundu Foro Ekonomikoan? Betikoa; hau da, aurreko urteetan bezala hazkunde ekonomikoaz, merkatuaren gorabeheret, neurri ekonomikoez... bakarrik arduratu dira. Baina non geratu dira gizakiak eta beraien duintasuna? Zergatik ez dira mintzatu hazkunde horrek herrialdeen artean eta pertsonen artean sortzen dituen ezberdintasunez?

Zergatik Milurteko Garapenerako Helburuak ez dira 2015erako beteko?... Davos-en urtero agertzen den eredu ekonomiko neoliberal honen aurka gaude, non bere funtsak giza garapen jasangarrria erabat erasotzen duen. Ondorioz, garapen ekonomiko, kohesio sozial eta ingurumeni zor zaion errespetuaren artean oreka mantentzen ez du uzten. Nahiz eta lorpen ekonomikoek mundu mailan hazkunde ahalbidetu duten, hazkunde hori ahulenen

lepoz lortu da eta ezberdintasunak nabarmen igo dira; hau da, aberats kopurua igoarazi du, baina are gehiago behartsuen kopurua (gizakien %50 egunean 1,5 eurorekin bizi dira). Aipatutako hazkundea baliabi-de naturalen ustiatze eze-gokian oinarrituta dago, batez ere pobretutako herrialdeetan, non ekintza hauen ondorio lazgarriek, besteak beste, gaur egun hainbeste urduritzen gaituen "aldaketa klimatikoa" sortu duten.

Pobreziaren aurkako borroka, Munduko Bankuak, Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) eta Mundu mailako Merkataritza Erakundeak (MME) ulertzen duten bezala, testuinguru politiko orokor batean kokatzen dute, non aurrera eramatea kontraesan bilakatzen den. Pobreziaren aurkako borroka estrategiak inuentea ez den logika ekonomiko globalean kokatzen dira. Liberalismo ekonomikoak merkatua zerbaite naturala balitz bezala konsideratzen du, beraz eztabaidea ezina, eta ez du eraikuntza sozial bat bezala ulertzen non bere funtzionamendua egoera zehatzen menpe dagoen. Kapitalismoaren logika barnean, merkatari-tza harremanak derrigorrez desberdinak izan daitezke soilik, ezinbesteko ezaugarrria baita kapitalaren metaketa pribaturako.

Ikuspegi honetan, gizakiar-kin zerikusia duen guztia merkatuaren menpe geratzen da; programa goragarriak erabakitzentzira, hala nola Milurteko Garapenerako Helburuak, neoliberalismoak sortu dituen okerrak zuzentzen sainatzen direnak, baina gobernu eta botere finantzario-ek ez daukate eredu hori aldatzeko benetako borondatetik. MGHak sinatu dituzten herrialde aberatsetako gober-nuek helburu horiek nola lortu behar dituzten azaltzea beharrezko litzateke, beraien aplikatzen dituzten politika neoliberalak kontrako norabi-dean baitoaz. Baina beste mundu bat posiblea da, guztiun

artean giza garapenerako eredu berri bat eraiki baiteza-kegu, zein gizakia ekonomia zein politikaren muinean kokatzen duen eta helburu nagusitzat gizakien oinarrizko beharren asetzea bilatzen duen.

Eredu ekonomiko berri batek inbertsioaren errentaga-rritasun ekonomikoaren eta giza errentagarritasunaren arteko oreka bilatu behar du, pobretutako herrialdeen kanpo zorra kitatu behar du, paradisu fiskalak ezabatu behar ditu, espekulazioa zigortu behar du, ustelkeriari aurre egin behar dio eta diruaren balio soziala berreskuratu behar du, gizarte-arekiko arduratsuak diren inbertsioak eta banka etikoa bultzatzuz.

## Emakumeona da erabakia

Maite Urzain (Bilgune Feminista)  
Arrasate

Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoak kinka larrian dauden garai honetan, non pentsatzeko, sinesteko, aldarrikatzeko, parte hartzeko edo maitatzeko eskubiderik ere ez dugun kasik, lerrootan Bilgune Feministaren izenean aspaldidanik euskal emakumeok pairatzen dugun beste eskubide urraketa bat salatu nahi dugu. Euskal emakumeok gure etorkizun indibidual eta kolektiboa modu askean erabakitzeko eskubidea mugatua dugu. Batetik, gure herriko zatiketa administrati-boak eta herri izaeraren ukazioak, eta bestetik, sistema patriarkalak ezarritako mugen, gure herriak bizi duen egoera antide-mokratikoa okerrago-tzen duelako emakumeon kasuan. Estatu frantsesaren eskumarako joera eta estatu espainiarren barruan botere faktiko diren hainbat talde, hala nola eliza, goi klase atzerakoia edo usteldutako sistema juridikoa, emakumeon eskubideen urraketa sistemati-

koa mantendu eta sustatzen ari dira. Horren adierazle garbi dira azkenaldian burututako manifestaldi ultra kontserba-doreak, klinika abortu-eragile pribatuen kriminalizazioa edo kasuak aipatzen hasita, Nafarroako emakumeek abortatzeko dituzten ezintasun eta mugak. Izan ere, azken kasu honetan, abortu eskubi-dea onartzen den hiru supos-tuetan ere ezin baitute nafa-rek klinika publikoetan abortatu (bortxaketa, amaren osasunaren arriskua eta fetuaren malformazioa).

Ez dugu, beraz, abortatzeko eskubiderik, oraindik orain, delitu izaten jarraitzen duelako aipatutako hiru kasuetan iza ezean. Abortu askea eta doaneko aldarrikatzen dugu, beraz. Arrasateko mugimendu feministan urteetan jardun duen lagun baten hitzak errepi-katu nahi ditugu: zergatik ematen zaio garrantzi handiagoa, abortuaren inguru-ruan izandako eztabaidan, elizgizonen hitzari emakumeon hitzari baino? Horregatik da hain garrantzitsua afera honetan emakumeok hitza hartu eta erabakitzeko eskubi-dea gureganatzea. Bihar zapatua, otsailak 16, Iruñean egingo den abortatzeko eskubidearen aldeko manifestaziorako gonbidapena luzatu nahi dizuegu lerro hauetatik. Manifestazioa arratsaldeko bost eta erdietan hasiko da hiriburuko autobus geltoki parean.

## ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAn, kon-trazalean, *Tuppersex: jostailu erotikoak* izeneko artikulua argitaratu genuen. Jostailuerotikoak erakutsi eta saltzeko etxeetan egiten diren saioen gaineko zen artikulua. Telefono bat aipatzen zen bertan, jostailu horiek saltzen dituen Kristina Vare-larekin harremanetan jartzeko. Akats bat zegoen, ordea, telefonoan. Hau-xe da zuzena: 697 40 79 98.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karakte-re edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin bate-ka bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefinoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

Goienkaria 37.020 irakurle



# GOIENKARIA: askogatik, irakurriena\*

\*CIES-EK EMANDAKO DATUAK

- GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea, askogatik.
- Debagoendarren %67,4k astero irakurtzen du GOIENKARIA.

# Goienkaria

**AURLEN  
KONTUGAZTE ENTZUNENA  
ORAIN, 3.000 €<sup>(1)</sup> (UTB %5,06)  
KONTUGAZTEN SARTZEAGATIK,  
IPOD NANO ZORAGARRI  
BAT EDO LOGITECH  
BOZGORAILUAK ZURETZAT.**

Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 08/02/01 espaldiente zk-duna.



Biak nahi dituzula? Bada, erraz asko. Orduan **Kontugazte** kontuan **6.000 euro<sup>(1)</sup>** sartu behar dituzu.

IBILI BIZKOR ETA EGIN ZEURE EKARPENA **KUTXAREN EDOZEIN**  
**BULEGOTAN EDO KUTXANET** BIDEZ<sup>(2)</sup>. ETA GOGORATU:  
**KONTUGAZTEREKIN, ZURE DIRUAK GEHIAGO BALIO DU.**

(1) DIRUA ALDI BATERAKO GORDAILU BEREZI BATEAN EGONGO DA URTEBETEZ, ESKUDIRUTAN INTERESIK SORTU GABE.  
ESKAINTZA HAU 2008KO MARTXOAREN 3 ARTE BALIO DUTEN PFEZ ARAUEN MENDE DAGO. (2) BIDE HONETAKI AUKEKURATIKO  
GAUZAK ETXERA BIDALIKO DIRA.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



## > BERGARA

Usondoko parkean, hainbat konponketa egingo ditu Udalak > 21



## > OÑATI

"Laixanen etorkizuna beltza da", dio elkarteko presidenteak > 27



## > ANTZUOLA

Uzarragarako bidetik izango da sarrera Bergaratik doazenendako > 28



## > LEINTZ GATZAGA

Aurrekontuak martxoan onartuko ditu Udalatzak > 31

OÑATI > INGURUMENA

# Erakusketa batekin hasiko da Oñatin Ingurumen Astea, astelehenean

## ARGAZKIAK

Narrasti eta anfibioen gaineko erakusketa egongo da bi astean

## IKUSKIZUNAK

Naturarekin lotutako bi film eta ipuin emanaldi bat izango dira

## HITZALDIAK

Lau adituk gai bana landuko dute, denek ere, ibarrarekin zerikusia dutenak

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Astelehenean, hilak 18, hasiko da Oñatiko Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Astea. Hamabigarren urtea du oraingoa, eta bi helbururekin antolatzen dute: bat, Natur Eskolaren lana herritarren artean zabaltzea; eta bestea, ingurumenaren gauza onak eta arazoak ezagutaraztea.

Natur Astea *Euskal Herriko narrasti eta anfibioak* erakusketarekin hasiko da. Aranzadi Zientzia Elkarteak prestatu du.

## IBARRAREKIN LOTUTAKO GAIAK

Urte batuetan, Ingurumen Asteko ekintza guztiak gai jakin baten gainekoak izaten dira; beste batuetan, aurten bezala, denetrik dago. Natur Eskolako Jon Betanzos arduradunak honela dio: "Gaurkotasuna duten gaiak aukeratzen saiatzen gara. Aurten, gai asko geneuzkan lantzeko". Horrez gain, aurtengo gaiak zerikusi handia dute Debagoienarekin. Gai horiek mota askotako ekintzen bidez aztertzen dituzte.

*Barrera-efektua faunan* delaiko hitzaldian, Miguel Mari Elosegi biologo eta basozainak azpiegiturek animaliengän zelan eragiten duten azalduko du. Autobidea, AHT... sartzen dira hor, baina baita azpiegitura txikiak ere, hala nola, ubideak.



FERIA Martxoaren 1ean, Zuhaitz Feria egingo dute Foruen Plazan, eta denetariko landareak erakutsi eta salduko dituzte.

ARTXIBOA

Kiko Alvarez biologo eta Urdaibai Biosfera Erreserbako zuzendaria *Espezie inbaditzai-leen eragina ekosistemetan* hitzaldia egingo du. Esti Sarrionandia onddoen gainean hitz egingo du, "izan ere, onddoak ez dira bakarrak jateko; ekosistemak gara daitezen oso garrantzitsuak dira, eta eurak barik, ez litzateke basorik egongo", azaltzen du Natur Eskolako arduradunak.

Azken hitzaldiak ere zuzenezan ukitzen du Debagoiena, erreketaz berba egingo du-eta Joserra Diez biologoak. Antolatzaileek diotenez, "ahalegin handia egin da erreka garbitzeko, baina bertako ekosistemen kaltetan, askotan". Erreka garbietako biodibertsitatea zelan aberastu daitekeen azalduko du Diezek.

**ZINEMA ETA IPUIN EMANALDIAK**  
Oñatiko zineklubeko arduradunekin batera, azken urteotan beza-

la, naturaren gaineko filmak emango dituzte. *Naturaleza muerta* film txinatarra Venezia Uurrezko Lemoia irabazi zuen, eta Txinan Hiru Eztarriak izeneko urtegia eraikitzearen ondorioz izandako aldaketak kontatzen ditu. Bigarren filmak, *Tierra-k*, gure planetaren edertasunaren irudiak batzen ditu.

Umeendako ekintza bat ere egongo da: Gorringo taldeak bi egunetan egingo duen *1.728 animali kontu* ipuinaren kontaketa. Uharte bakarti batera egiten duten bidaian, bi esploratzailek animalia pila bat topatuko dute. Emanaldira joateko gonbidapenak aldez aurretik eskatu behar dira kultura etxeen.

Azkenik, Zuhaitz Feria egingo dute martxoaren 1ean; *Euskal Herriko eta kanpoko zuhaitzak* erakutsi eta salduko dituzte. Martxoaren 2an, Zuhaitz Egunean, zuhaitzak landatuko dituzte.

## Ingurumen Astearen egitaraua

### Erakusketa

Kultura etxeen, egunero *Euskal Herriko narrasti eta anfibioak*. Otsailak 18-martxoak 21. Ordutegia: 18:30-20:30.

### Hitzaldiak

Natur eskolan, 19:00etan

**Otsailak 25**  
*Barrera-efektua faunaren* Miguel Mari Elosegi

**Otsailak 26**  
*Espezie inbaditzai-leen eragina ekosistemetan* Kiko Alvarez

**Otsailak 27**  
*Onddoak, basoetako ezagun ezezagunak* Esti Sarrionandia

**Otsailak 29**  
*Errekak, ura baino zerbait gehiago* Joserra Diez

### Zinema

Kultura etxeen, 20:00etan

### Otsailak 21

*Naturaleza muerta*. Zuzendaria: Jia Zhang Ke.

### Otsailak 28

*Tierra*. Zuzendaria: Alastair Fotherhill eta Mark Linfield.

### Ipuinak

Ume-liburutegian, 18:00etan  
**Otsailak 26 eta 28**

*1.728 animali kontu*. Gorringo taldea.

### Zuhaitz feria

**Martxoak 1.** Herriko Plazan, 09:00etan. Hainbat mintegitako landareen erakusketa eta salmenta; hemengo zuhaitzak, koniferoak, fruta-arbolak, loreak...

### Zuhaitz eguna

**Martxoak 2.** Herriko Plazan batuko dira 10:00etan, autoz joateko. Arrikutz inguruan landatuko dituzte zuhaitzak.



**kale inkesta****Ekonomiaren egoerarekin kezkatuta zaude?****Mateo Larrañaga**  
Langilea  
Arrasate**Itziar Lopez**  
Langilea  
Arrasate**Ignacio Lasu**  
Langilea  
Arrasate**Josune Milan**  
Langilea  
Arrasate**Isabel Martin**  
Langilea  
Arrasate

Nire inguruko guztiak ondo bizi dira. Izan ere, hipotekak ordaintzen ditu jendeak, baina bidaia, afariak... berdin egiten ditu. Hala eta guztiz ere, tabernetan ikusten da hutsunea.

Nabaritzen da zerbait, lan munduan batez ere. Denak egin du gora: janaria, jantziak, hipotekak... Gainera, orain, semeak izanda, gastu gehiago daude, eta denera ezin da heldu.

Aspalditik nabari da hori. Nik neuk, baina, ez dut bereziki nabaritu. Jendea asko kexatzen da denak gora egin duelako, baina aisiaidiko beste gauza batzuk berdin egiten ditu; hori ez da ulertzen.

Nik oraindik ez dut nabaritu. Hala eta guztiz ere, asko entzuten da hipotekak direla-eta jendea estuago ibiltzen dela hil amaierara heltzeko, baina bidaiatzeko, adibidez, badago dirua.

Ekonomia oso gaizki dago. Gauza askotan nabaritu dut nik, gainera, batez ere, janaria erositerakoan. Ezterako dirurik ez dugula esaten dugu, baina jendea bidaiatzera joaten da.

**txistuak**

GOIENKARIA

**Ozaetako hesia egoera txarrean**

Aste honetan Bergarako Ozaeta auzoko bizilagun baten kexua jaso dugu. Bada denbora Ozaeta auzoko zubia eta haren ostean dagoen hesia egoera txarrean dagoela. Bi irtenbide ematen ditu hark: alde batetik, hesi berriak ipintzea; edo, bestela, bertako sastraka guztiak kendu eta hain beharrezkoak diren aparkaleku batzuk egokitzea.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria****asteko datua****2.010**

2.010 izango da, Oñatin, Ibarra gunean egin nahi den proiektuaren amaiera urtea. Bertan unibertsitatea eta centro teknologikoa eraikiko dira. Proiektu hau EAJk bultzatu zuen 2008ko aurrekontuen negoziazioetan.

Nahiko nuke greba orokorrak, nahiz eta neurri baten neu ezkorra izan, erantzun ona izatea. Ez jendeak halabeharrez Ezker Abertzalearen helburuekin bat egitearren, baizik eta politika egiteagatik espetsratzea inola ere bidezkoa ez delako, eta hori salatu egin behar delako.

Erantzun ona izango ez balu, pentsatuko nuke hedabide askok saltzen duten leloa, alajaina, ezker abertzalekoak espetsxera-tzea soilik ezker abertzalearen arazoa dela, herritar gehienek sinistru dutela. Halako tendentzia ikusten dut nik gizartean, eta benetan tristea litzateke hori barneratu izana.

**5 galdera...****Asun Arroyo**Kuttun lentzeriakoa  
Oñati**1. Atzo San Valentín izan zen. Nabaritu duzue egun berezi hau salmentetan?**

Normalean, jendea egun berezi horren bezperan etortzen da erostra, baita egunean bertan ere, nahiz eta badiren denboraz etortzen direnak oparia erostra, azken momentura arte itxaron gabe. Bai, nabaritzen dugu salmentetan.

**2. Urtean zehar, noiz salten duzue lentzeria gehiago?**

Gehienbat, urtebetetzeetarako erosten du jendeak, baita agurretan oparitzeko ere. Baina opari handiak Olentzero eta Erregetan izaten dira. Neguan, aldiz, tapatuago daramagunez, jendea ez da erostra animatzen, baina udan, bai.

**3. Lentzeriak nolakoa izan behar du kalitezkoia izan dadin?**

Gaur egun, oso garrantzitsua da pertsona bakotzaren neurrikin asmatzea. Kalitatea ona iza-teko, gorputzean erosu gelditu behar da erositakoa, eta jendeak horri begiratzen dio.

**4. Gizonak lentzeria eros teko orduan lotsatiak dira oraindik ere?**

Hori lehen gertatzen zen; gaur egun, ez horrenbesteraino. Lehen, gizonak denda kanpoan begira gelditzen ziren, eta inor ez zegoenean sartzen ziren dendara. Orain, berriz, gizonek lotsa txikiagoa dute dendara sartzeko orduan eta erositakoa aukeratzeko orduan. Beste batzuek telefonoz egiten dizkigute enkarguak. Guk aukeratzen dugu emaztearentzat egokia dena, eta dendara etortzen dira bila. Gainera, gizonak, eurentzat eroske ere, emazterik gabe joaten dira dendara.

**5. Lentzeria munduan, zer da modan, gaur egun?**

Azken urte hauetako oso abangoardistak dira ehuneko dagokienez. Hain zuzen ere, josturari gabeko ehunak, gorputzean ez dezaten markatu. Beste tendentzia bat barruan daraguna erakustea eta enkaje markatuekin joatea da.



UDALA &gt; GIZARTE ONGIZATEA

# Larrialdi egoeran daudenei begira, udal laguntza gehiago

Orain arte, alokairua ordaintzeko laguntzak ematen zituen Arrasateko Udalak

Hemendik aurrera, adibidez, etxebizitzaz mantentzeko laguntzak ere izango dira

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Larrialdi egoerei aurre egiteko irizpide berriak onartu ditu oraingo astean Tokiko Gobernu Batzarrak. Horrek esan gura du aurrerantzean Udalak orain arte baino laguntza gehiago emango dituela. Halaxe azaldu du Gizarre Ongizateko arduradun Ander Rodriguez zinegotziak: "Dirutan ematen dira eta subentzio modukoak dira. Gastu batzuk beharrezkoak dira, gure ustez, gizarte bazterkeriarik gerta ez dadin edo halako bazterkeria

konpontzeko. Eta berariazko gas-tu horiei aurre egiteko nahikoa baliabide ez dutenendako dira laguntza horiek".

Rodriguezek azaldu du sei arrazoirengatik eska daitezkeela laguntzak: "Gaur egunera arte Arrasateko Udalak alokairuko gastuendako bakarrik ematen zituen laguntzak. Akordio horri esker, gainerako kontzeptuen-dako ematen hasiko gara: adibi-dez, ohiko etxebizitzaz edo bizitokia osatzeko edo mantentzeko beharrezkoak diren gastuetara-

ko, gama zuriko altzariak eros-teko, etxetresna elektronikoen gastuetarako, etxebizitzaz egoki-tzeko, konpontzeko edo oinarrizko instalazioak egiteko, oinarrizko beharrizanetarako edo aurreko zorrei aurre egiteko".

**MUGAK**

Edozelan ere, laguntza horiekin lotutako muga edo tope batzuk ere finkatu dituzte: "Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu muga horiek. Adibi-dez, diru-sarrerei begira, etxe-batean pertsona bakarra bizi bada

muga sarrera da hilean 924 euro; bi lagun badira, 1.186,5 euro; hiru badira, 1.291,5 euro; eta lau edo best badira, 1.312,5 euro".

Eta irizpideak dagoeneko indarrean daudenez, laguntzak nahi denean eska daitezkeela nabarmendu du Rodriguezek.

**ESKATZEKO BALDINTZAK**

Larrialdi egoeran dagoen edozeinek eska ditzake laguntzak, baina badira baldintza batzuk: "Sei hilabetez erroldatuta egon behar du EAEn, 18 urte beteta izan behar ditu eta aipatutako gastu espezifikoei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez ditu izan behar", azaldu du Gizarte Ongizateko zinegotziak.

Larrialdietarako laguntza horiek handitu ahal izateko, udal aurrekontutik gai horretara bideratutako laguntzak %20 handitu behar izan dituzte: "160.000 eurotik 200.000 eurora ino igo dugu".

HAUTESKUNDEAK 08 &gt; MAHAIK

## Mahaietan, 300 lagun egongo dira

Lan egin ezin dutenek erreklamazioak aurkez ditzakete, BAZen bitartez

**U.M.-> ARRASATE**

Zozkutu dituzte martxoko hautes-kundeetan bozkalekuetan jardun beharko duten herritarren ize-nak. Astelehenean egin zuen udal-batzak osoko bilkura berezia hori egiteko. Eta jakinarazi dute dago-eneko gertu dituztela lan egitea tokatu zaien herritar horiei bidal-tzeko jakinarazpenak. Hain zuzen, egunotan banatuko dituze, udaltzainen bitartez.

**33 MAHAI**

Arrasaten 33 hauteskunde-mahai izango dira, sei bozkalekutan banatuta: horietako hamar izango dira Ferixalekuau, lau Santa Marinako Toki Argin, lau Musakolako San Antolin, sei San Andresko Bedoñaben, sei Erguinen eta azken hirurak Jokin Zaitegin. Mahai bakoitz-

rako presidente bana eta bina bokal behar dituzte, eta, haien-dako ordezkoak; guztira, bederatzi lagun. Hortaz, 297 herritarren izenak aukeratu zitzuten.

**ERREKLAMAZIOAK, NON ETA ZELA**

Horietakoren batek mahaien ezingo balu egon, astebete inguru dauka erreklamazioa aurkez-teko. Bergarako Hauteskunde-batzordean egin behar du hori. Bergararaino joan gura ez due-nari, Biztanleen Arreta Zerbitzuuan emango diote behar dituen instantzia guztiak erreklamazioak egiteko.

**60 EURO ORDAINETAN**

Gainerakoek martxoaren 9an 08:00etan, puntuan, egon behar-ko dute bozkalekuetan. Agertzen ez dena zigortu egingo dute: 14:30 egunez askatasuna kendu egingo diote eta 2 eta 10 hilabe-te arteko isuna ipiniko diote. Aldiz, lanera doazenek, 60 euroko ordainsaria kobra-tuko dute, maiatzeko hauteskundeetan bai-nozapen euro inguru gehiago.



Hiru zati dituen pasabidea, otsail amaierarako

Egunotan azken ukituak egiten dabilta Iturbide egoitzaren ondoko pasabidean; besteak beste, zoladura lanak egiten. Arrasateko Udalak zehaztutako dataren arabera, otsailaren amaierarako derrigor bukatuta izan beharko dute. Pasabide berri horren bitartez, Garibai etorbidea eta Zerkaosteta kalea lotuko dituzte irisgarritasun arauak betetzen dituen aldapa batekin. Izen ere, orain arte zegoen aldapa oso maldatsua zen eta ez zituen irisgarritasun arauok betetzen. Zatika egindako pasabidea da ipini dutena. Hain justu, bi zati zuzen ditu eta beste bat bihurgune itxurarekin.

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**%60-ko deskontua  
uda eta neguko stock-etan**

**UME**  
Umeen moda

Garibai etorbidea 6. Tel: 943 79 97 86



Fagorren Garagartzako fabrikaren atzean egingo dituzte ortuak. MIRIAN BITERI

ZERBITZUAK > ORTU EKOLOGIKOAK

## Ehundik gora eskaera, Udalaren ortuak eskuratzeko

Biztanleen Arreta Zerbitzuan izenak hartzen dabilta oraindik, Udalak sortu gura dituen ortu ekologikoetako bat eskuratzeko

UBANE MADERA > ARRASATE

Geroago eta jende gehiago dabil izena ematen Udalak sortu gura dituen ortu ekologikoetako bat eskuratzeko. Udaleko Ingurumen Sailean batutako azkeneko datuen arabera, 158 lagunek eman dute izena oraingoz, eta baliteke gehiagok ere ematea; izan ere, tarteka-tarteka, izen gehiago batzen dituzte Biztanleen Arreta Zerbitzuan.

Gainera, datuon arabera, mota askotako jendea dago interesatua, eta ez erretiratuak eta gizonezkoak bakarrik. Datuak zenbakitan begiratuta, adibidez, 30 eskaera baino gehiago egin dituzte emakumeek. Eta horien artean ere bada datu esanguratsurik: adibidez, gazteek ere era-kutsi dutela interesa ortu ekologikoetarako. Emakumeen artean, 20-30 urte bitarteko hamar eskaera jaso dituzte. Emakume nagusi batzuk ere animatu dira izena ematera; eta badira bi 60-70 urte bitartekoak.

EPEA, ORAINDIK ZABALIK

Edozelan ere, interesa dutenek oraindik badute aukera izena emateko. Izan ere, ortu ekologikoekin gaineko egitasmoa geldi dago oraingoz. Hain justu ere, LKS enpresa egitasmo horren gaineko proposamen eguneratua lantzen dabil.

Kontua da ortu ekologikoen proiektua 2005ean egin zuela Udalak. Haren bitartez, Udalak partzela bat egokitzen gura du Garagatzaz auzoan, Fagor lantegiaren atzeko aldean, herritarrendako ortuak sortzeko; erre-tiratu, langabe eta Udalak zehaztutako irizpideen arabera, hainbat herritar talderendako. Hasierako asmoen arabera, 60 ortu inguru sortu behar zituzten Garagartzan.

BEHARRETARA EGOKITU

Baina hiru urte pasa dira harrezkero, eta ikusita orain arte jasotako eskaera kopurua, udal talde berriak erabaki du ortuen proiektua egokitzen egin behar duela herriak erakutsi dituen beharretara.

Besteak beste, ortu gehiago sortu gura ditu orain Udalak. Hori bai, aurreikusitakoa baino ortu txikiagoak izan beharko dute: 80-90 ortu inguru guztira, 50-60 metrokoak.

Horrez gainera, Udalak baratze horien banaketa egiteko erabiliko duen irizpidea zehaztea falta da. Hau da, adibidez, eskatzaileek zein baldintza bete beharko dituzten ortu ekologiko bat eskuratzeko; ortua eskuratz gero zenbat denborarako emango dioten; eta halako xehetasunak.

### Orain arteko izenemateak

	EHUNEKOTAN	KOPURUA
Erretiratuak	30,95	55
Langileak	57,52	88
Ikasleak	1,96	3
Langabeziak	2,61	4
Bestelakoak	1,96	3
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>153</b>

ARRASATEKO UDALEKO INGURUMEN SAILA, ORAINGO ASTEKO DATUAK FALTAN

Oier Beitia > Des-Kontrol taldeko abeslaria eta gitarrista

## "Kontzertuko sarrerek eta egongo den tabernarekin, isuna ordainduko dugulakoan gaude"

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE

Bihar, zapatua, izango da Des-Kontrol musika taldearen aldeko elkar-tasun kontzertua, Uarkapen, 21:30ean. 2006an, Durangoko Plateruenan, mikrofonoarekin ikusle bat zauritu zuten, gura barik; horren ondorioz, 8.000 euroko isuna jaso zuten. Isuna ordaintza du, bada, biharko ekitaldiak helburu.

Dena gertu duzue biharko?

Bai, dena prest dago. Kartelean Iturripen izango dela iragarrita badago ere, Uarkapen izango da, baimen kontuak direla-eta.

Nola sortu zen ideia?

Salaketarena jakitean, lagun-tza eske jo genuen. Musikariak garenez, dirua lortzeko bidea musika zela pentsatu genuen.

Zelako ekitaldia izango da?

Herriko jende askoren artean antolatutako dela nabarmenduko nuke.

Taularen gainean sei talde izango zarete.

Horrela da, bai. Arrasateko bost talde: Arkada Social, Enboskada, Never Surrender, The Motherfuckers eta gu geu; eta Algor-tako Ukabilkada taldea.

Elkartasun keinu horrek herriko taldeen arteko harreman ona erakusten du.


Bai, zer gutxiago, ezta? Guri gertatu zitzagun moduan, edozeini gerta dakioke. Dena dela, musikariekin bakarrik ez, oroko-rrrean herritar askok erakutsi digute laguntzeko jarrera.

Albisteak publiko izan zenetik, elkartasun keinu gehiago izan duzue?

Bai, jende askok deitu digu zer gertatu zen galdetzeko eta lagun-tza eskaintzeko; kanpotik ere bai.

Epaiketa injustua dela aipatu duzue sarritan.

Duda barik, nahigabe izan zen-eta. Mikroa kablera lotuta



Oier Beitia, Magu, Des-Kontrol taldeko abeslaria eta gitarrista. AITZIBER ARANBURUZABALA

Kontzertuarekin ordainduko dituzue, bida, 8.000 euroak.

Bai, sarrerarekin eta egongo den tabernarekin lortuko ditugu-lakoan gaude. Diru gehiago bilduz gero, antolatzaileon artean erabakiko dugu zertan erabili.

Zenbat sarrera atera dituzue? Nola doa salmenta?

1.500 bat lagunendako izango dira; kontzertuaren egunaren aurretik, 1.000 bat sarrera saltzea espero dugu.

Non daude salgai?

Arrasateko eta Debagoieneko hainbat tabernatan, eta, horrez gainera, Lekeitio ere badira, 10 euroren truke.

Biharko kontzertuaz gain, bes-te ekitaldirik egiteko asmorik baduzue?

Ez, ez dut uste. Kontzertua egin, isuna lehenbailehen ordaindu eta guztia ahazteko desiratzen gaude.

**badabil arrasate biteri 11**

**INAUGURAZIOA** **%10**

promozioaren balioa martxoak 1 arte

**P** BITERI parean

*haurmoda*

**PILOTA****Udaberriko jardunaldia, etxetik kanpora****X.U. > ARRASATE**

Udaberri Txapelketa barruan, Arrasateko pilotarietik etxetik kanpora jokatuko dute asteburuan. Hala, kadeteek Bergaran jokatuko dute gaur (20:00), eta gazte mailakoak Tolosara joango dira domekan (11:00) Alkizako pilotarien kontra jokatzea. Seniorrek, azkenik, Billabonara egingo dute bidaia zapatuan (10:00).

**HASI DUTE DEBARROKOA**

Aste barruan hasi dute Debarroko txapelketa. Hala, ibarreko pilotariak asteburutan Udaberri Txapelketan burubarri dabilzanez aste barruan jokatu behar dituzte txapelketa berriko norgehiagokak.

Txapelketa horretan, Debabarrenako eta Debagoieneko pilotariekin neurituko dituzte indarrak, eta aurten Arrasateko klubari dagokio txapelketa antolatzea. Hori horrela, Mauri Zubillagaren mutilek hasiera txukuna izan dute txapelketan. Eskoriatzan jokatu zituzten partiduetan, gazte mailan Eskoriatzaiko pilotariekin 22-16 irabazi zieten Arrasatekoie. Senior mailan, berriz, Arrasateko gailendu ziren (22-5). Eta, kadete mailan Arrasateko ordezkariek 22-11 menderatu zuten Elgoibarko bikotea.

**HARROBIAREN EMAITZAK**

Emaitzekin batera, Mauri Zubillagak taldeak duen pilotari kopuruaren gainean ere egin du berba: "Orain dela urte batzuekin alderatuta, gozamena da. Lehen ez geneuzkan pilotaririk, lanak izaten genituen partiduak jokatzeko. Eta orain, pilotari bat beste batengatik ordezkatzen badut, ordezkoak ere ondo egiten du lan". Harrobioko lanaren emaitza da hori.

**> MENDIA****Besaideko bazkide txartelak jasotzeko deialdia egin dute**

Arrasateko Besaide Mendizale Elkartekoek aditzera eman dute dagoeneko egoitzan bertan daudela bazkide txartelak, eta baita federatu txartelak ere.

Azken horiek dute berezko garrantzia, edozer gauza gertatuz gero erakutsi beharreko txartelak baitira. Hala, Besaidekoek aditzera eman gura dute bazkideek egoitzatik bertatik pasatu beharko dutela txartelak jasotzen.

**SASKIBALOIA > LEHENENGKO MAILA****Ardoi da MU belaunikarazi duen bakarra, eta Iturripen izango da bihar (18:00)**

Lehenengo eta bigarren postuan dauden MU eta Ardoi izango dira bihar aurrez aurre; errebatxa hartzeko aukera ezin hobea da

**KABIER URTZELAI > ARRASATE**

Ligara begira baino igoera fasea begira dira baliotsuak bihar jokoan egongo diren puntuak. Ligako lehenengo fasea amaitzeko bi jardunaldiren faltan Mondragon Unibertsitateak (31 puntu) lider amaituko du lehenengo fasea. Atzetik datozi biharko kontrario Valsay Ardoi (27) eta Cafes Aitona (27), baina orain, lider amaitu ala ez gutxienekoa da. Bihar Iturripen izango den taldeak baino ez du lortu MU makurraraztea, kontrarioak hobeto jokatu duela onartu eta amore eman behar izatea. Zortzigan jardunaldian izan zen hori (76-70) Zizur Nagusian (Nafarroa) jokatutako partiduan, eta ordutik hona, hobeto ala okerrago jokatuta ere, Mondragon Unibertsitateak binan-binan batu ditu puntuak.

Hori horrela, igoera faserako oso garrantzitsua den partidua izango da biharkoa, baina neuiri berean, azaro amaieran izan-



IÑIGO BIAIN laj Ardoiren kontra jokatutako partiduan.

J.A.

dako estropozua zuzentzeako aukera izango dute Merinoren mutilek, errebatxa hartzeko, alegia.

**SANTUTXUREN GAINETIK**

Joan den asteko norgehiagokari dagokionez, zapaltzeko makina bailitzan gainditu zuen MUk Ocaso Berrio Otxoa talde santutxarra (55-98). Bilbotarrek ez dute izan zorte onik aurten, min harutzako jokalari asko dituzte, eta

horregatik ez daude sailkapenean gorago. Lehenengo laurdenean 10 puntu aldea baino ez zuten eskuratu zuri-moreek. Santutxuarrek nahiko txukun eutsi zuten hor, baina Arrasatekoen presioak min egin zien, bigarren laurdenean aldea nabarmen handitu zen 40 puntu baino gehiagoa izan zen arte.



JOSETXO ARANTZABAL

**Atletismoko proba gehiago gaur (18:00)**

Joan den astean bezala, gaur ere ibarreko atleta gazteek atletismo saioak izango dituzte Mojategin (18:00etan hasita); gutxieneko markak gainditzeko helburuarekin jardungo dute gaur.

Horrekin batera, oraino asteburuan egingo dituzte Anoetan pista estaliko Euskadiko txapelketak. Arrasatekoen artean, Jonathan Perez, Malen Axpe, Lore Mar eta Lide Pagaldai izango dira pertika-saltoan; Eukene Dorronsoro lehiatuko da 60 metroko proban, Remi Diosdado 200 metrokoan eta Oihane Urtzelai luzera-saltoan.

**futbitoa zaldibar****EMAITZAK**

Ciprís-Bar Kokots .....	8-0
Ekaitz-Betrayer .....	4-9
Iturrioz-Dribling .....	4-18
Equs-Dublin Irish Pub .....	2-6
THC-McAwenDauen .....	3-10
Saukelu Abian-HLB 108 .....	4-5
Abokajarro-Cicatrux .....	10-2
Iriztu Taberna-AT Celaya .....	4-5
Dribling-Abokajarro .....	11-1

**PARTIDUAK**

Otsailak 16, zapatua .....	Epaileak
09:50 THC-Cicatrux .....	Iriztu
11:00 Abokajarro-Iriztu .....	THC
12:00 Bar Kokots-Betrayer .....	Abokajarro
13:00 Lasagabaster-Saukelu .....	Betrayer
14:00 Ekaitz-Dublin .....	Lasagabaster
16:00 Iluntz-Iturrioz .....	Kalapatxak
17:00 Kalapatxak-Dribling .....	Iturrioz
18:00 Ciprís-Total Disaster .....	Dribling
Otsailak 17, domeka .....	Epaileak
10:00 Iluntz-Lasagabaster .....	Total Disaster
11:00 Kalapatxak-Total Disast. .....	Iluntz
12:00 AT Celaya-HLB 108 .....	Equs
13:00 Equs-McAwenDauen .....	AT Celaya

**SAILKAPENA**

	P	J
1. McAwen Dauen .....	27	9
2. Betrayer .....	22	9
3. Dribling .....	19	10
4. Dublin Irish Pub .....	19	9
5. Ciprís .....	19	9
6. HLB 108 .....	15	9
7. Lasagabaster .....	13	8
8. Saukelu Abian .....	13	9
9. Ekaitz Taberna .....	13	9
10. AT Celaya .....	12	9
11. Iriztu Taberna .....	12	9
12. Iluntz .....	11	8
13. Kalapatxak .....	10	7
14. Iturrioz Taberna .....	10	8
15. Abokajarro .....	9	10
16. Bar Kokots .....	9	9
17. Equs .....	9	9
18. Cicatrux .....	6	9
19. THC .....	3	9
20. Total Disaster .....	0	8

**Zigortuak, eta norgehiagoka interesarriak**

Joan den jardunaldian izandako tira-biren ondorioz, antolatzaileek zigortutako jokalariekin hasiko dugu Zaldibarko tarte hau. Emaitzari erreparatuta, bistan da Saukelu eta HLB 108 taldeek arteko norgehiagoka parekatua izan zela, eta badakigu giroa ere bero-bero egon zela. Hala, antolatzaileek bi talde horietako jokalari bana zigortu dute; bi partidurako, gainera.

Oraino asteburuan begira, bi norgehiagoka azpimarratuko ditugu, jokoan egongo diren puntuak balio handia izango dute-eta: batetik, 13na puntu dituzten Lasagabasterrek eta Saukeluk zapatuan jokatuko dute, 13:00etan. Galtzen duena baliteke hurrengo faserako sailkatzen duten postuetatik kanpo geratzea. Horrekin batera, talde batek baino gehiagok jardunaldi bikoitzia izango du; bada, gora egiteko aukera ezin hobea.

**DISNEYLAND PARIS.**  
Erreserba otsailaren 8 eta 26 artean eginez gero, lau egun igaro eta hiru ordaindu. Ekainaren 22tik azaroaren 6ra arteko eskaintza. 7 urtetik beherako haurrek hegaldia eta egonaldia doan. Buffalo Bill-en ikuskizunean %15eko deskontua.



**ASTE SANTUA:**  
**TUNISIA** 427 eurotik.  
7 egun - 6 gau.  
**ISTANBUL** 575 eurotik.  
6 egun - 5 gau.  
Hainbat irteera Loiutik:  
Praga, Paris, Londres,  
Erroma, Amsterdam...



**FUERTEVENTURA**  
**(7 gau) 375 euro DENA BARNE.**  
Barcelo Jandia Playa edo Jandia Mar hotela.  
Eskaintza otsailaren 23ra arte.

**ASTE SANTUAN**  
**ARRASATETIK**  
**SALOURAKO**  
**AUTOBUSAK.**

**AUTOKARABANA ESKAINTEA BEREZIA**  
\* Eguneko eta pertsonako 20 €-tik aurrera.  
• Bizikleta-eramateko  
• Eski-eramateko  
• Berria



\* prezio hori 6 pertsonek hartutako McLouis 2.11 autokarabanetan

**Arrasate Bidaiaik**  
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



**ARRASATE BIDAIAK**  
Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45  
E-posta.: d4051@marsans.es

## ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

**R** zaharrak  
**BERRI**



**NOIZ:** Otsailak 20 eta 21

**NOR:** Larraitz Ugarte  
Biart abokatu bulegoa

**GAIA:** Komunitateko obrak:  
igogailuak.

Zure intereseko elkarrizketak,  
erreportajeak eta tertuliak batzen dituen  
programa berria daukazu GOITBn

**EGUAZTENETAN 20:15ean**  
**EGUENETAN 13:15ean**

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,  
**SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**  
Deitu programan zehar **943 00 08 34** telefonora

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

Babeslea:

...  
URREZKO  
kutxa ZERBITZUA

ZERBITZUAK &gt; UDAL KANPOSANTUA

# Kolunbarioak jarriko dituzte hilerrian

Nitxoetan jarriko dituzte kolunbarioak, eta indibidualak eta familiarrak izango dira. Hala, herritarren eskariari erantzun nahi die Udalak

**MONIKA BELASTEGI > BERGARA**  
Geroago eta herritar gehiagok hautatzen dute hildakoan erraustea, lurperatzea barik. Hori horrela, errautsok kanposantuan gordezteko eskariak ere ugaritzen joan dira azken boladan eta, eskarioi erantzuteko asmoz, hilerrian kolunbarioak jartza erabaki du Udalak, horma-hilobien hegaletan, hain justu.

Kapera ostein dauden hiru horma-hilobietako baten jarriko dituzte, oraingoz, eta, beharra egoz gero, beste bietan ere jarriko dituztela azaldu du Udalak.

Indibidualak eta familiarrak –lau edo bost lagunendako lekuarekin– izango dira, eta Zaragozako Lufuble enpresak egingo ditu. Oraindik erabakitzeko dago kolunbarioen aurrealdearen itxura, baita leloen letrena ere. Dena den, hori guztia arautu egingo du Udalak, "gero bakoitzak nahi dueña ez egiteko". Hala, kolunbarioen gaineko ordenantza prestatzen dihardute, eta itxura, erabilera modua eta halakoez gain, prezioa ere jasoko dute.

**HERRERA GELA ETA ALDAGELAK**  
Hilerriko kapera ostein dauden langileendako aldagelak ere konponduko dituztela azaldu dute

udal iturriek; eta, aldagelokin batira, gune berean dagoen harerra gela ere bai. Gaur egun, oso egoera kaskarrean daude aldagelak zein harrera gela; udal iturrien esanetan, "harrera gelak beldurra ematen du; ez dago herritarra hartzeko moduan".

Horrez guztiaz gain, hilerrian dagoen landaretza ere txukundu egingo dute. Dauden zuhaixka zein zuhaitz zaharrak kendu eta berriak jarriko dituzte, eta egoera onean daudenak ere txukundu egingo dituzte. Lan horiek Udaleko brigadak egingo ditu.

#### KAPERAS AURRERAGO

Kolunbarioak jarri eta aldagelak, harrera gela eta landaretza txukuntzeko lanok egiteko diru partida aurtengo aurrekontuan sartuko dutela aurreratu dute udal iturriek, eta lanak hilabe-



HORMA-HILOBIETAN Horietako baten hegalean jarriko dituzte, oraingoz. ARTXIBOA

te gutxira hasiko direla ere gehitu dute.

Horrez guztiaz gain, hilerriko kapera konpontzeko asmoa ere agertu dute iturri berbereak. Hala ere, "aurten ez da denerako

iritsiko, eta kaperaren konponketa lanak datorren urteko aurrekontuetan hartuko ditugu aintzat", aurreratu dute. Teilitua, sarrera eta zorua dira konponketa behar handien dutenak.

INSTALAKUNTZAK &gt; LABEGARAIETAKO KIROLDEGIA

## Kiroldegiko taberna, lehiaketara

**M.B. > BERGARA**  
Labegaraietako udal kiroldegiko taberna ustiatzeko eta instalazioak garbitzeko deialdia egin du Udalak. Kontratuaren iraupena urte batekoa izango da, eta urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere, beste bederatziz urtez. Nahi duten guztiak aurkezta ahal izango dira lizitazio librera, eta lizitazioan parte hartzeko, 400 euroko behin-behineko fidantza ezartzea derrigorrezko baldintza izango da. Lizitaziorako gehienezko muga urteko 18.000 eurokoa da (BEZ barne), eta kopuru hori gainditzen duen proposamenik ez da kontuan hartuko.

**BETEBEHARRAK**  
Honako betebeharrak izango ditu taberna hartzetako duenak: taberna ustiatzea eta kiroldegiko ins-



TABERNA Irudian, sarrera. GOIENKARIA

anitzeko pista, skate parkeak barne- eta kiroldegia alda-meneko eraikinen erabilera –barruko eta kanpoko biltegiak-kontrolatu eta zaintza, betiere Udalak finkatutako irizpideei jarraituz; tabernari atxikitako elementuek behar dituzten konponketa guztiak bere kontura egitea; tabernaren jarduerarako behar diren ohiko gastuak –ura, argi indarra, gasa, telefono...– ordaintzea eta kiroldegia garbiketa egitea.

Lehiaketan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaleko Erregistro Orokorean aurkeztuko dira, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik –hilaren 12an, martxeten, argitaratu zuten– kontatzen hasita 15 egun naturaleko epean, goizez.

ZERBITZUAK &gt; TURISMO BULEGOA

## Martxoaren 10ean irekiko dute Turismo Bulegoa

Aurten, 161 egunez izango da zabalik, eta iazko enpresak kudeatuko du

**M.B. > BERGARA**  
Gobernu Batzordeak onartu berri du Turismo Bulegoak 2008an izango duen egutegia. Hain justu, 161 egunez egongo da zabalik, iaz baino egun bat gehiago. Horietatik 141etan goiz eta arratsaldez egongo da zabalik, eta 20 egunez, soilik goizetik –iaz, 137 egunez egon zen goiz eta arratsalde zabalik.

Zerbitzua emango du North Incoming Service enpresak, azkeneko lau urteetan Turismo Bulegoak.

Bulegoaz arduratu den berberak. Egutegiari dagokionez, honakoia izango da: martxoaren 10etik apirilaren 6ra egongo da zabalik, Aste Santura begira; udan, berriz, maiatzaren 19tik urriaren 5era zabalduko dute; eta abenduan, 5etik 9ra.

Ordutegiari dagokionez, zabalik egongo da lanegunetan; goiz eta arratsaldez zabaltzen den jaiegunetan, 10:30-14:00 ordutegian; eta soilik goizetik zabaltzen den egunetan, berriz, 16:30-19:30 ordutegia izango du.

**BISITA GIDATUAK, DOAN**  
Horrekin guztiarekin, eta ireki zutenetik egin izan duen bezala, dohaineko bisita gida-tuak eskainiko ditu Turismo Bulegoak.

## ANTIA


HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## KONDE PANADEROKUA

  
Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



**JAUJA  
KIROLAK**  
Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

OBRAK ETA ZERBITZUAK > USONDO PARKEA

# Usondo komuna konpondu dute eta laster iturria garbituko dute

Parkeko berdegunetik txakurren kakak batzeko deia ere egin die Udalak txakurren jabeei

**MONIKA BELASTEGI > BERGARA**  
Usondo parkean hainbat egokitzapen egingo ditu Udalak. Alde batetik, komuna konpondu du. Hilabetetik gora da komuna itxita zegoela, norbaitek apurtu zue netik, baina joan zen astean konpondu egin zuten eta parkeko erabiltzaileek ateak zabalik aurkituko dituzte bertara hurbilduz gero. Udaleko Obra eta Zerbitzuetako iturrien arabera, era bat txikitu zituzten komunak barruko aldetik eta baita zikindu ere.

**ITURRIA GARBITU EGINGO DUTE**  
Komuna konpontzeaz gain, parkearen erdialdean dagoen iturria ere txukundu egingo dute.



ITURRIA Aurrez ere garbitu izan dute iturria. Irudian, azken pintaketak. GOIENKARIA

Harrizko iturriak hainbat pintaketa ditu eta horiek garbitzeko Prolinor enpresa espezializatua kontratatu du Udalak. Iturria garbitu eta gero, tratamendu berezia emango diote, harriaren gaineko geruzak egonkortzeko. Izan ere, hainbat aldiz garbitu behar izan dute iturria pintake-

tengatik, eta harriaren geruzak altzatzen hasi dira. Lanon aurrekontua 2.900 eurokoa da.

Bestalde, Udal arduradunek dei egiten diete txakurren jabeei Usondo berdegunetik txakurren kakak jaso ditzaten. Diotenez, oso gutxi dira oraindik hala egiten duten txakurren jabeak.

HAUTESKUNDEAK 08 > MAHAIAK

## Asteon egin dute martxoaren 9rako hauteskunde-mahaiak osatzeko zozketa

M.B. > BERGARA

Astelehenean, martxoko hauteskundeetarako hauteskunde-mahaiak osatzeko zozketa egin zuten osoko bilkuren aretoan, udalbatzarraren aurrean.

Hautesle-erroldan oinarrituta egin zuten zozketa, arautegiak dioen moduan, eta mahai bakoitzeko bederatzi herritarren izenak hartu zituzten: mahaiko lehendakaria eta haren lehen eta bigarren ordezkoak; lehenengo bokala eta haren lehen eta bigarren ordezkoak; eta bigarren bokala eta haren lehen eta bigarren ordezkoak; herrian 19 mahai daudeela kontuan izanda, 171 pertsonaren izenak, hain justu ere. Mahai horien banaketari dago-

kionez, bost hauteskunde-esko latan banatuta egongo dira: bederatzi, Seminarioko eskolan; lau, Matxiategin; bat, Osintxun; lau, Martokon; eta bat, Labegaraietan.

### HERRITARREI JAKINARAZI

171 laguneko zerrenda hori Hauteskunde-batzordera bidali du Udalak, eta hari dagokio herritarrei, idatziz, jakinaztea. Mahaien egotea tokatu zaien herritarrek datozen egunetan jasoko dute jakinazpen hori eta epe bat izango dute -jakinazpenean zehazten da epe-salbuetsita geratu nahi baldin badute, behintzat, horretarako arrazoia Hauteskunde-batzordera helarazteko.

> EUSKARA

## Gurasoendako aholku liburuxka eta kantu eta jolasen DVDa banatu du Udalak ikastetxeetan

Umeen hizkuntza-ikasketak eta familia transmisioak duten garrantzia kontuan hartuta banatuko du Euskara Zerbitzuak sorta hori. Herriko hiru ikastetxeetako lau urteko umeen artean banatuko dituzte aholku liburuxka eta kantu eta jolasen DVDa.

The advertisement features four panels arranged in a 2x2 grid. The top-left panel shows a sofa and armchair with the text 'ARKAUZ MUEBLES ARETXABAleta'. The top-right panel shows a bedroom set with a dresser and chair, with the text 'ETXE MOBEL ALTZARIK ARRASATE'. The bottom-left panel shows a kitchen unit with the text 'ARKAUZ COCINA INTEGRAL ARETXABAleta FAGOR banatzailea ofiziala'. The bottom-right panel shows a built-in oven with the text 'ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS ARETXABAleta expert banatzaile ofiziala'.

Arkaus zure etxea da.

**GRUPO ARKAUZ**  
ARETXABAleta • ARRASATE  
1950•2008

KONTZERTUA &gt; GAZTETXEAN

## Txapa Irratiko kontzertuak, bihar

Captain Nemo eta Funtastic Planet taldeek eskainiko dute kontzertua, gaueko hamaiketan hasita, gaztetxean

A.E. > BERGARA  
Txapa Irratiak antolatutako kontzertua izango da bihar Captain Nemo eta Funtastic Planeta taldeek eskainiko dutena. Gaueko hamaiketan izango da kontzertua, gaztetxean. Urtean zehar Txapa Irratiak antolatzen dituen kontzertuen barruan dago biharkoa ere.

Captain Nemo Donostiarra taldea da. Punk-rock musika egiten dute, baina hardcore

musikaren eragina duen taldea ere bada Captain Nemo. Biharko kontzertuan, abesti berriak eskainiko dituzte donostiarrek.

### '1280 EUSKAL HIRIA'

Gorputza eta mamia dute Captain Nemoren abestiek; punk errabiaduna eta gizarteratzalea egin dute *1280 Euskal Hiria* lan berrian. Gainera, aurrerantzean, Señor No taldeko Xabi izango da taldeko bigarren gitarra jotzailea.

Funtastic Planet, berriz, Tolosaldeko talde gaztea da. Eurek ekoiztutako lehen lana aurkezteria dator Bergarako gaztexera. Hain zuzen, Patxi Azpiroz (gitarra), Txomin Azpiroz (baxua), Iñaki Larrea (bateria) eta Iker Pinillos (ahotsa) dira taldekideak.

JARDUN ELKARTEA &gt; IKASTAROA

## Dantza ikastaroa, Jardunen eskutik

Jardun euskara elkarteak eta Abarka taldeak antolatutako ikastaroa da; Martinez de Iralan izango dira eskolak

A.E. > BERGARA  
Aurtengoa dantza ikastaroa antolatzen duten hirugarren urtea da. Jardun euskara elkarteak eta Abarka dantza taldeak antolatuta, hilaren 26tik maiatzaren 27ra, dantza solte eta Larraintz dantza ikasteko aukera egongo da.

**BAZKIDEK, MERKEAGO**  
Larraintz dantza eta dantza soltea ikasi nahi duenak aukera ona du. "Ez dago zertan bi dantza ikastaroetan izena eman; bata edo bestea aukera daiteke", esan dute Jardunekoek. Hala, dantza soltea ikasi nahi duenak edo Larraintz dantza ikasi nahi duenak 26 euro ordaindu behariko ditu matrikula egiterakoan. Bi dantza ikastaroetan izena emanez gero, berriz, matrikula 32 euro kostako da.

Jardunekoek adierazi dute elkarrekin horretako bazkide direnekin hiru euro gutxiago ordaindu beharko dutela matrikula.

Hain zuzen ere, Larraintz dantza martzenetan izango da, 19:30ean; eta, dantza soltea (fandangoa eta arin-arina) egue-

netan, ordu berean. Eskola guztiek Martinez de Irala gimnasioan izango dira.

### ERROMERIETARA BIDERATUTA

"Maiatzean egiten diren erromerietara bideratutako ikastaroa da", esan dute Jardunekoek. Hala, herritarrak erromerietan dantza egitera animatu nahi dituzte. Adin tarte guztia zabalduko ikastaroak dira. Izena emateko, Jardunera joatea edo 943 76 36 61 telefonora edoitzeara nahiko da.

IPUINA &gt; KONTAKIZUNA

## Istorio magiko, erotiko eta tragikoak Aroztegin

Otsailaren 21ean, egunean, kontatuko ditu Miren Camisonek Aroztegi aretoan helduentzako ipuinak; arratsaldeko zazpietan izango da saioa

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA  
*Emankortasunaren mundu magikoak, erotikoak eta tragikoak* ipuin sorta eskainiko du Miren Camison ipuin kontalariak datoren egunean. Aroztegi aretoan izango da emanaldia.

Munduko istorio motzak eta ipuinak izango dira, emankortasunaren ingurukoak. Horren barruan, hainbat gai landuko ditu; tartean, ama lurra munduan, emankortasuna eta hitza kultura ezberdinaren, bikoteen arteko erlazioak, amatasunaren inguruko ipuinak eta Ekialdeko ipuin erotiko eta umoretsuren bat. Hain zuzen ere, Afrikako, Euskal Herriko eta Ekialdeko



CAMISON Miren Camison ipuin kontalaria.

GOIENKARIA

ipuinak nabarmenduko dira egunean ipuin kontakizunean.

### ANTZINAKO ISTORIOAK

Miren Camison Filosofian lizenziaduna eta Haur Hezkuntzan diplomaduna da. Haurrentzako

ipuinak kontatzen ditu; baina, oraingoan, helduentzako ipuinak dator Bergarara. Hitzek eta antzinako istorioek gizakiaren-gan daukaten botere izugarriaz, magikoaz eta mugagabeaz jarduno du Camisonek.

&gt; GAZTETXA

### Benito Zambranoren 'Solas' lana izango da ikusgai domekan

Domekero moduan, gaztetxean izango da hitzordua, arratsaldeko seietaen. Gazte Batzarrak antolatutako saioak dira; domekako filma Benito Zambranoren *Solas* lana izango da. Urtarrila eta otsaila bitartean ematen ari diren Bizi-zikloa delakoan sartzen da *Solas* lana; bizitzako etapa ezberdinak islatu gura dituzte.

&gt; ZINEMA

### Agorrosingo aretoan, 'Lucio' dokumentala zapatuan eta domekan

Aitor Arregi oñatiarrak zuzendutako *Lucio* dokumentala eskainiko dute zapatuan eta domekan Agorrosingo ikus-entzunezko aretoan. Bi emanaldi egingo dituzte: 16:30ean eta 19:30ean. Goya sarietara izendatuta egon da Lucio Urtubia anarkistaren bizitza jasotzen duen lana; edozelan ere, ez zuen Goya irabazi.

### > IKUS-ENTZUNEZKO 'Aire-airean Broad Peak' lana eskainiko dute hilaren 29an

Aroztegi aretoan izango da *Aire-airean Broad Peak* (8.047 metro) ikus-entzunezko. Irudi apalak, gozoak eta adierazgarriak erabili dituzte Baltistango lurren berri emateko. Besteak beste, Unai Elorriaga, Juanrra Madariaga, Iñaki Zubeldia eta Garbiñe Tolosak idatzitako hitzakin osatutako ikus-entzunezko da.

## HURBIL belar dendak

**NOVA LINE-eko espezialistarekin**  
elkarritzeta bat DOAN **oparitzen** dizute;  
hark **DOAKO AZTERKETA** egingo dizu  
eta **koipe, ur eta masa muskularreko**  
portzentajeaz informatuko zaitu

Har ezazu ordua:

**HURBILen**

Domingo Irala z/g • BERGARA


943 76 30 08

Pisua eta bolumena soberan badituzu...

NOVA  
LINE

falta  
zaizu

Pisuaren kontrolean  
arrakasta ziurtatuta duzu!



NOVA  
diet

# IV. EIBAR FACTORYING



## ASTELENA FRONTOIAN

2008ko otsailaren  
20, 21, 22 eta 23an



18urteetik beherakoentzat DOHAIN.



PARKING EROSKI  
9:00 - 21:00  
TXANTXA - ZELAI  
2 Ordu Dohain Sarrerarekin



Egunak: 20, 21 eta 22  
10:00 - 13:30 / 17:00 - 20:30  
Larunbata: 23  
10:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00

ARIZONA JEANS  
GLOSS MODA JOVEN  
DEPORTES BETOÑO  
CEDRY MODA  
LOLA'S  
DOROTI  
XARE

GUBY CHICOS  
ENIGMA  
CALZADOS NIMU  
KOPIÑA  
TXUKUNA  
IRRITSA  
SOLOZABAL

CALZADOS PISSA  
TTIKI  
NARRUA  
DRACH  
ZAPADRACH  
CALZADOS NONA  
AGAITI

ZERO  
TRIBUX  
IRIS SPORT  
GARMEN  
D'MYSTIC

**2008KO ARATUSTEETAKO KALE-ANIMAZIOKO SARIDUNAK:  
“ALTZAIRUGILEAK”**

**160 eurotako bonoa**

Bedelkarreko jatetxe eta tabernetan erabiltzeko



**MATRIKULAZIORAKO INFORMAZIO BILERAK**

**2-12 urte bitartekoentzat**

Otsailaren 19an euskeraz 18:00etan  
eta gaztelaniaz 19:00etan.



Telefonoa / Faxa: 943 79 00 49  
e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net

*Egutegi eta ordutegi zabala ( uztaila... )  
Goizeko eta arratsaldeko zaintzak.*

**goieskola**  
debagoieneko euskal  
eskola publikoa



- Ikasten ikasteko,
- Egiten ikasteko,
- Elkarrekin bizitzen  
ikasteko,
- Norbera izaten  
ikasteko,



**12-16 urte bitartekoentzat**

Martxoaren 13an 18:00etan.

**Zatoz Gurera!**

... Euskara eta Euskal kulturaren  
jabelekuntza eta bizi-pena bide,  
Mundura begira.

Telefonoa / Faxa: 943 79 57 40  
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net









ERREPIDEA &gt; ALDAKETAK SARRERA-IRTEERETAN

# Bergaratik datozenek Uzarragarako bidetik izango dute lehen sarrera

Giroa epeltzen denean azken asfalto geruza botako dute errepiidean, eta margotu, argiztatu eta seinaleak ipinita, gertu izango da bidea

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Beheko auzoan herrirako sarrera berria egiteko lanak amaitu gabe daude oraindik. Hala ere, Bergara aldetik datozen ibilgailuek Uzarragarako zubia, Etxezuri pareko sarrera, erabili behar dute Antzuolara sartzeko. Izan ere, orain arteko herrirako lehen sarrera, Eguzki auzoaren parekoa, kendu egin dute. Sarrera berritik Sanjosepe kalean barrena joan ostean, bi aukera izango dituzte: Elay aldera edo Kalebarrerena joatea.

BEHEKO AUZOAN

Irteteko, berriz, bi aukera izango dira: lehengo irteera erabiltzea edo Etxezuri paretik irtetea.



ETXEZURI Bergaratik datozenak Uzarragarako zubitik sartuko dira herrira.

HAUTESKUNDEAK 08 &gt; MAHAIAK

## Mahaietako kideak aukeratu dituzte hauteskundeetarako

Aukeratutakoek, joan ezin badira, hilaren 16ra arteko epea dute alegazioa aurkezteko

I.A. &gt; ANTZUOLA

Martxoaren 9an egingo diren Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan bi hauteskunde mahai ipiniko dituzte Olaran etxeen. Mahai horietan zein herritar egongo diren aukeratzeko, zozketa egin dute.

Lehenengo mahaian presidente izatea egokitu zaio Ibon Gezalagari, eta haren ordezkoak dira Rosario Garitano eta Unai Diosdado, hurrenez urren. Lehen mahaikidea David Ignacio izango da, eta haren ordezkoak, Alberto Elizburu eta Jone Gorrotxategi. Bigarren maha-

kide Isabel Gartzia izendatu dute, eta haren ordezkoak izango dira Maria Evelia Aguado eta Gotzon Gabilondo.

Bigarren hauteskunde mahaian, Javier Martinez izango da presidente, eta Iker Larrea eta Juan Gabriel Urriategi, haren bi ordezkoak. Lehen mahaikidea Jose Mari Mendiabala da, eta Igor Labaien eta David Martin, ordezkoak; bigarren, mahaikidea, Raquel Tena, eta ordezkoak, Kepa Andoni Zubillaga eta Gorka Manso.

**ALEGAZIOAK**

Hauteskunde mahaietarako aukeratutakoek dagoeneko jaso dute Udaletik jakinarazpena. Hala ere, ezin badute egun horretan mahaian egon, otsailaren 16ra arte (zapatua) izango dute Hauteskunde-batzordean alegazioak aurkezteko.



IRATI AGIRREAZALDEGI

## Sua anbulatorioaren kanpoaldean

Joan zen domekan, 21:00etan, sua piztu zen anbulatorio kanpoan. Sofa zahar bat su eman zioten gaztetxo batzuek, eta ondoren, hango belarrak hartu zituen suak. Suhiltzaileek berehala kontrolatu bazuten ere, kalteak eragin ditu anbulatorioan. Leihoa eta fatxada hondatu ditu, batik bat, eta anbulatorioan astelehenean larrialdiak bakarrik atenditu zituzten. Orain, gutxienez, hilabete beharko dute suteak egindako kalteak erabat konpondu arte.

**EGAÑA**  
Era guztiak arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

> GARBITASUNA  
**Txakur kakak jasotzeko eskatu die Udalak jabeei**

Udalak bandoa kaleratu du txakur jabeei eskatuz txakurra kalea ateratzean arduraz jokatzeko eta kaka jasotzeko. "Ez da inorendako atsegina kalean txakur-kaka artean ibiltzea", dio alkateak. Antzuolarrek herri txukuna eta garbia nahi dutela eta horretarako Udalak kalea garbitzeko ardua duela eta Mankomunitateak gaikako bilketa zerbitzua eskaintzen duela ere gogorarazi du.

> ELKARTEAK  
**Azken ateratzean, 92 herritarrek eman zuten odola**

Orol emaileen elkartea herritarrei eskerrak eman nahi dizkie urtarriko odol-ateratzera jende asko joan zelako: hain zuzen, 100 lagunetik gora agertu ziren eta 92k eman zuten odola. Hurrengo hitzordua maiatzaren 29an izango dute odol emaileek. Bestalde, elkartekoek otsailaren 3an egindako diru bilketan 550 euro jaso zituzten. Diru hori elkartea mantentzeko erabiliko dute.

> INFORMATIKA  
**Otsailaren 18an egongo da dinamizatzailea KZgunean**

Olaran etxeen dagoen KZgunea astelehenetan egoten da zabalik, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Hilabetean hainbat bisita egiten ditu dinamizatzaileak, eta otsailean, bi dira bisitak. Lehenengoa hilaren 4an egin zuen, eta hurrengoa datorren astelehenean, otsailaren 18an, egingo du. Ordutegi berean egongo da KZgunean era-biltzaileen zalantzak argitzeko eta laguntza emateko.

**LARREA**  
**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUA

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19





UDALA > OSOKO BILKURA

# Aurrekontua datorren hilean onartuko dute

Ez dute izan astirik ondo gertatzeko, eta gurago izan dute martxorako ezohiko osoko bilkura deitzea

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA  
Ohiko osoko bilkura egin zuen Gatzagako udalbatzak eguztenean, hilak 13. Hain zuzen, 2008ko

udal aurrekontua gertatzen dabilta lehenbailehen onartzeko, baina ezin izan dute ondo gertatu, eta, azkenean, martxora atzeratzea erabaki dute: "Aurrekontua onartu barik inbertsiorik ezin dugu egin, eta ezohiko osoko bilkura deituko dugu martxorako, lehenbailehen onartzeko", azaldu du Eusebio Villar alkateak.

Eguazteneko osoko bilkuraren hauteskunde-mahaian egon beharko duten herritarra hau-

tatu zitzuten zozketa bidez, hiru titular eta beste sei ordezkoak. Egunotan jasoko dute deialdia hautatutakoek, eta ondoren erreklamazioak egiteko epea izango dute, hilaren 23ra arte.

Bestalde, bi abal itzultzea onartu zuten eguztenean. Soran jauregia eroasterakoan jarri zitzuten abalok, eta lanak aurrera doazela ikusita -teilatua egiten bukatu dute-, aurrez jarritako dirua itzultzeara erabaki zuen Udalak.



OSOKO BILKURA Gatzagako udalbatza osoko bilkurako gaiak eztabaizdatzen.

M.A.



TXAPELKETA Pilotari gazteak partidua jokatzen.

M.A.

KIROLAK > PILOTA

## Azpeitiaren eta Markinaren arteko finala etzi, domeka

Finala jokatu ostean ez dira geldituko Gatzagan bantzuten, Arrasatera joango dira

M.A. > LEINTZ GATZAGA  
Pilota topaketak egiten ibili dira Gatzagan joan zen urteko irailaz geroztik. Bizkaiko eta Gipuzkoako 12 herriatik etorritako mutikoek jardun dute norgehiagokan, tartean gatzagarrek. Onenek, Azpeitia eta Markinak, finala jokatuko dute domekan, hilak 17.

BAZKALTZERA ARRASATERA  
Antolatzaileek ez dute txapelketa berba erabili gura, baina txapelketatako giroa izango da domekan: "Pilota topaketak esatea hobea, baina finala beti da finala, eta garaikurrak ere izango dituzte txapeldunek", dio

Mauri Zubillaga arduradunak. Alebin, infantil eta kadete mailako pilotariek izango dituzte partidua, pilotalekuaren 10:30ean hasi eta 13:00ak inguru arte "partidu politak" ikus-teko aukera izango dela uste dute antolatzaileek. "Partiduen ostean bantzuten geratu izan gara beti Gatzagan, baina aurten eguraldi txarraren susmoa dago, eta Arrasateko elkartea batera joango gara", argitu digu Zubillagak.

Gatzagako pilotariek Eskoriatzakoekin batera osatu zuten taldea topaketan jarduteko. Aurten ezin izan dira finalera iritsi; beharbada hurrengoan.

argazki zaharra

## Dorleta, erromesen ostatu

Erromatarrek gaztelua eraiki zuten Gatzagan, gatz uraren inguruan sortutako ekonomia eta bizimodu babesteko, eta haren hondarretatik sortu zuten gero Dorletako Amaren santutegia. 1331. urtean parroquia izateari utzi zion, eta Santiago bideko erromesen eta Gaztelara eta Frantziara zihoazen bidaia-rien ostatu bihurtu zen. Gaur duen itxura XVII. mendekoa da, eta hainbat estiloren nahastea dauka. Ama Birjinaren irudia, ostera, XIII. eta XIV. mendeetako taila polikromatua da.

Argazkia: Leintz Gatzagako Udala.  
Testua: GOIENKARIA.  
Urtea: 1965.



ESKUBALOIA &gt; EUSKADIKO TXAPELKETA

# Jardunaldi bikoitza Ford Mugarrik eta beste final bat Bergarak

Arrasatekoek Basauri eta Barakaldo izango dituzte asteburuan kontrario

Bergarak Lea Corazonistas hartuko du; bizirik irauteko beste aukera bat dute

**XABIER URTZELAI > BERGARA**  
 Santamas egunean jai hartu izanaren ordaina izango dute asteburuan Ford Mugarriko mutilek. Jai denean jai egin behar da, baina txarrena da lanak bikoitztu egiten direla gero. Hori horrela, Beñardo Balerdiren mutilek Basauriko eta Barakaldoko taldeen kontra jokatu beharko dute 24 orduren barruan, baina taldeak dagoeneko badaki zein den irabazi beharreko partidua.

Izan ere, oraingoan ere jokalari moduan ibilikio den Fertxu Rodriguezek esanda, Barakaldo mendean hartzea gaitza izango da, baina gaur iluntzean Basauriaren kontrako partidua irabazi beharrekoa da: "Niretako Barakaldo txapelketako talde osoena da. Hala ere, taldeak partidu hori irabazteko ahaleginak egingo ditu, asmoa asteburuan jokoan egongo diren lau puntuak batzea delako. Hori bai, gaurko partidua derrigor irabazi behar dugu, Basauri pareko taldea delako". Bi puntu gehiago batuta, Arrasatekoek 18 puntu izango lituzkete, eta gauzak dauden moduan egonda, kategoriari eusko ez da gehiago behar.



BASAURIEN KONTRA Ford Mugarriko jokalaria erasoan, iazko denboraldian Basauriaren kontra jokatutako partiduan. J.A.

## BERGARAK ERE ETXEAN

Joan den astean Urolaren kontrako partidua galtzea Bergarakoendako gogorra izan da, segurunik, aurten jaso duten kolpe gogorrena: "Izan ere, Basauriaren kontra irabazi izan bagenu bi puntu horiek sari moduan hartuko genitzuke. Baina, Urolaren kontra galduztako puntuak

behar beharrekoak genituen, eta zelan galdu genuen jakinda (27-26), amorrull handiagoa ematen du", adierazi du taldeko entrenatzale Josetxo Muniategik. Lehenengo zatian bost goleko aldea izatera iritsi ziren bergararrak, baina Bigarren zatian ez zuten errenta hori mantentzen jakin, eta azken hiru minutue-

tan aurreratuta nagusitu ziren Urolakoak.

Bihar, berriz, sailkapenaren erdian dagoen Lea Corazonistas izango dute kontrario. Denboraldia amaitu artean, Bergarak etxearen jokatuko dituen partiduak (4) izango dira, kategoriari eusteko irabazi beharrekoak.

## Emakumezkoek eta beteranoek jokatuko dute bihar Mojategin

Errugbizaleek hitzordu bikoitza izango dute bihar Mojategin. 16:30ean emakumezkoen taldeak Mungiaren bisita hartuko du, eta 17:45ean etorriko da Herensugeak taldearen txanda. Beteranoek Donostiako Opla taldekoen kontra jokatuko dute lagunartekoak.

Erretratuaz azaltzen diren seniorrek, berriz, joan den astean Bilbao UPV mendean hartu eta gero (27-23) Mungiara egin beharko dute bidaia bihar arratsaldean.



JOSETXO ARANTZABAL

## > ATLETISMOA

### Mari Sol Ramos Espainiako krosean txapeldunorde

Joan den domekan egin zuten Lloret de Marren Espainiako Kros Txapelketa, eta Oñatioko lasterkari beteranoa zilarreko dominarekin itzuli zen etxera.

Ramosendako lehenengo aldia zen horrelako lasterketa batean esku hartzen zueña, eta hasierako kilometroak lasai egin zituen. Indarrak azkenerako gordeta, kontrarioak aurreratu eta bigarren helmugaratu zen, Maria Luisa Muñozzen atzetik.

## > ATLETISMOA

### Espainiako Txapelketan izango da Yeray Varela

Amurrioko krosean lasterketa ona eginda, Yeray Varela Espainiako Txapelketan izango da. Promesa mailan bigarren sailkatu zen Oñatioko, eta sailkapen orokorrean 13. lekuaren helmugaratu zen. Hala, Varela eta klubeko gainontzeko atletek egin dako lanari esker irabazi zuen Realak taldeko saria.

Aipatu David Castañok kadete mailan egindako lana, seigarrenra izan zen.

## > FUTBOLA

### Igoera fasean lider jarraitzen dute BTLSko neskek

Joan den asteburua biribila izan zen BTLSkoendako. Batetik, igoera fasean dabilen emakumezkoen taldeak 0-3 irabazi zion Ostadarri. Hala, berargarrek lehenengo postuari heldu diote (25 puntu), eta bigarren lekura bidali dute ordura arteko lider Intxaundi (24 puntu).

Zapatuan, BTLS taldeak kontrario gogorra izango du aurrean, hirugarren postuan dagoen Tolosaren bisita izango dute-eta Ipintzan (15:00).

## > ZIKLISMOA

### Dorletako Amak bihar aurkeztuko du aurtengo taldea

Dorletako Ama Txirrindulari Taldeak bihar, zapatua, aurkeztuko ditu klubak 2008an izango dituen taldeak.

Urtero moduan, Dorletako Amari lore eskaintza egin ez hasiko dute ekitaldia (10:00). Eta, ondoren aurkeztuko dituze infantil, kadete eta gazte mailetako txirrindulariak, eta baita mendiko biki-kleta taldea ere. Hala, taldeek izango dituzten babesleen berri ere emango dute. Leintz Gatzagan izango da ekitaldia.

FUTBOLA &gt; PREFERENTEA

# Aretxabaletak aurrea hartu du oraingoan

Anaitasunaren kontra gura du Aretxabaletak joan den astean emandako aurrerapausoa defendatu; domekan Ibarra izango den kontrarioa larri dago

X.U. &gt; BERGARA

Itolarrian dagoen taldeak bi aurpegi izan ditzake: azken postuetan zergatik dauden erakusten duenarena, edota beheko postuetatik ihesi, amorratuta datorren taldearena. Domekan ikusi ahal izango du Aretxabaletak (16:30) bi aurpegi horietako zein erakusaten duen jaitsiera postuak bi puntura dituen Anaitasunak (23).

Momentuz, Aretxabaletak (34) dagoeneko aurrea hartu dio Mondrari (32), eta goian dauden taldeei begira egoteko eskubidea errekuperatu. Hori bai, bosgarren postutik aurrera egitea garesti dago, laugarren dagoen Trintxerpek (38) lau puntuo abantaila du-eta.

**TRINTXERPE, MOJATEGIN**

Hain zuen ere, Trintxerpek duen abantaila hori txikitzeo asmoarekin zelairatuko dira bihar Gordobilen mutilak (16:30) Moja-



'PIRU' Anaitasunaren kontrako iazko partiduan, kontrarioa gailendu guran. J.A.

tegira. Kontrario zuzena da Trintxerpe, aurrealdean borrokan dabilena. Hala, Arrasatekoak puntu batekin itzuli ziren Trintxerperen zelaitik, eta datuek erakusten dute etxeko partiduetan, orain arte, Mondra dela preferenteko talde indartsuena –21 puntu eskuratu dituzte Mojategin, Ondarroako Aurrera taldearekin batera–.



JOSETXO ARANTZABAL

**Preferentera igotzeko lehian inork ez du amore eman gura**

Lehenengo erregionalean, liga amaitzeko geratzen diren hamar jardundia diak emozio handikoak izango dira, talde asko daude-eta gora igotzeko lehian. Orain arte, Debako Amaikak Bat (39) taldeak erakutsi du lider sendoa dela. Baino, ikustekoa da bigarren postuagatik taldeek zelako lehia izan behar duten -bi postu horiek dute preferenterako saria–.

Orain momentuan Antzuolak (34) betetzen du leku hori, baina puntu kopuru bera dute Bergarak eta Rotetak, eta atzetik gertu datozi Oiartzun eta Urola. Hala, Antzuolak Ilintxa hartuko du bihar Estalan (16:30), eta ordu berean jokatuko du Bergarak Martuteneren kontra, Agorrosinen.

## asteburuko hitzordua

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**  
Real-Las Palmas  
Domeka. 17:00. Anoeta.

**Kadeteen euskal liga**  
Aretxabaleta-Gernika  
Domeka. 12:00. Ibarra.

**Prefereente maila**  
Berio-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:00. Donostia.  
Aretxabaleta-Anaitasuna  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
Mondra-Trintxerpe  
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Lehen erregionala**  
Bergara-Martutene  
Zapatua. 16:30. Agorrosin.  
Antzuola-Ilintxa  
Zapatua. 16:30. Eztala.

**Bigarren erregion. Igoera**  
Martutene-Aretxabaleta B  
Zapatua. 15:30. Martutene.  
Amaroz-BTLS  
Zapatua. 17:30. Usabal.  
Mondra-Getaria  
Domeka. 16:00. Mojategi.

**Bigarren erregion. Kopa**  
Elgeta-Zestoa  
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**  
Aretxabaleta-U.Txiki Touring  
Zapatua. 17:30. Ibarra.  
Bergara-Sanse  
Zapatua. 18:15. Ipiniza

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera**  
Mondra-Aloña Mendi  
Zapatua. 18:30. Mojategi.

**Lehen mailako gazteak, kopa**  
Bergara-Segura  
Domeka. 11:30. Ipiniza.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**  
Aloña Mendi-Bergara  
Zapatua. 11:15. Ibarra.

**Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea**  
Arrasate-Alerru  
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**SASKIBALOA**

**Lehenengo maila**  
MU-Valsay Ardoi  
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**PREST**  
**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

## ATE IREKIAK!

**OTSAILAK 21** 18:00 osteguna ARETO NAGUSIAN

**ONATIKO CAMPUSA** Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

**OTSAILAK 23** 10:00-13:00 larunbata ARETO NAGUSIAN

**IRUNEKO CAMPUSA** Tel.: 943 63 91 29 // aaullur@bidasoa.eteo.mondragon.edu

**ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!**

Ondoko titulazio hauek eskaintzen ditugu:

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua
- > Zuzendaritzan Idazkaritza
- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan 2. zikloko lizentziatura



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA  
943 71 45 66 [www.hotelazkoagaenea.com](http://www.hotelazkoagaenea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua



## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA  
943 76 55 00

### Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

### Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martxetenetan eta  
eguztenetan afaririk ez.



## Baster-Alde

Galartzau auzoa / ARETXABAleta  
943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

### Igandeetan itxita



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO

945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

### Astelehenetan itxita



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI

943 78 19 56 [www.etxeaudi.com](http://www.etxeaudi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Aste bukaerako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkaleku

### Egunero zabalik



## Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI

943 71 61 79

### Eskaintza

- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Karta
- Aste bukaerako menu bereziak
- Eguneko menuak
- Bi jangela

### Domeka gaelean itxita



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO

945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

### Egunero zabalik



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE

943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

### Eguazten arratsaldeetan itxita



## Zott jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI

943 78 35 45

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitarrekoak
- Hamarretakoak

### Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

### Igandeetan itxita



## > OIER LOPEZ DE LA CALLE

Informatikari oñatiarrak doktore tesi egiten dihardu eta ikerketan murgilduta dago Donostian. Aisialdian musikaz eta bidaietaz gozatzen du > 42



## > MUSIKA

Kassin + 2 talde brasildarrazapatuaren Amaia antzokian > 37

## > UNIBERTSITATEA

HUHEZIKO ikasleek Goiena Telebistan dihardute praktikak egiten > 43

Olaso Dorrea  
Sorrerakunde eta  
Euskaltzaindiaren  
arteko hitzarmena

Hitzarmena, erakunde  
bien arteko urtetako  
elkarlanaren fruitua da

Funtsean 1.930 liburu  
dira dohaitzan eman  
direnak; horien artean,  
balore handiko  
euskarazko liburuak

**A. ARANBURUZABALA > BERGARA**  
Eguaztena, otsailak 13, egun garrantzitsua izan zen Bergarako Olaso Dorrea Sorrerakunde eta Euskaltzaindiarentzako; izan ere, erakunde bien arteko elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horri esker, Olaso Dorrea Sorrerakundearena den ondare bibliografiko eta artxibistikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da; hau da, George Lacomberen Biblioteka eta Olaso Dorrea Sorrerakundearen Artxibo Historikoaren XX. mendeko atala. Ondorioz, George Lacombe zenaren ondare bibliografikoa Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan, Azkue bibliotekan, hamar urtez izango da eta Akademiak, ondare horren kontserbazioa eta katalogazioaren ardura izango du. Horrez gain, Artxibo historikoari dagozkionez, Euskaltzaindiaren egoitzan taxutu eta ordenatuko da; lan hori egiteko Akademiak hiru urteko epea izango du.

Ekitaldi xumea, etxekoia, izan zen. Jose Luis Elkoro Sorrerakundeko presidentearen hitzeken hasi zen. Fundazioaren historia eta helburuak zehaztuta, dohai-tza zertan zetzan azaldu zuen (bildumaren ezaugarriak, alde bakoi-tzari dagozkion konpromisoak...). Ondoren, Andres Urrutia, Euskaltzaindiako lehendakaria, lekuoa hartu eta eskerroneko hitzak izan zituen: batetik, Fundazioko Jose Luis Elkororentzako eta Ramon Mendibilentzako, hau da, harrera eta jarrera abegikorra izan dutelako; eta bestetik, hitzarmena aurrera egiteko urteetako lana egin duten Euskaltzaindiako Azkue liburutegiko hiru bibliotekariei: Jose Antonio Arana, Josune Olabarria eta Pruden Gartzia. Jarraian hitzarmena-

# Balore handiko liburuak eskura



HITZARMENAREN SINADURA Andres Urrutia, Euskaltzaindiako lehendakaria, eta Jose Luis Elkoro, Olaso Dorrea Sorrerakundeko lehendakaria.

A. ARANBURUZABALA

ren sinadura eta oroigarrien banatzea izan zen. Ekitaldia amaitzeko, Pruden Gartzia, Euskaltzaindiako bibliotekariak, bildumako ale esanguratsuenen gaineko azalpenak eman zituen.

## BIBLIOTEKA ABERATSENA

Antzinako euskal liburuen bildumarik onenetakoa da George Lacombe euskaltzain eta filologoa

zenarena, Gartziaaren esanetan. Funtsean 1.930 liburu dira, erlijioarekin edo osotasunean Euskal Herriarekin lotura dutenak: euskarari buruzkoak, historiakoak, folkloreari buruzkoak edo antropologikoak. "Garrantzitsuenak, euskarazko liburuak dira, 854 bat gutxi gora behera; XVI, XVII eta XVIII. mendekoak. Horien artean daude, Leizarragaren *Testa-*

*mentu Berriaren* bi ale, Bizkaierazko katixima, Joanes Haranbururen *Debocino escuara, miraila eta oracionotegua*, Axularren *Guero eta Guero Guero*, Elizalderen *Apezandaco doctrina cristiana uscaras.....* Beraz, izenburuek adierazten duten moduan, oso balore handikoak dira" gaineratu du Gartzia. Liburuengeroa dagozkionez, gehienak

oso egoera onean daudela adieraztu du Gartzia: "bat edo bestek konponketa eskatzen duten arren".

## URTEETAKO ELKARLANA

Urteetako elkarlanaren fruitua da Bergarako fundazioak eta euskararen akademiak sinatu berri duten hitzarmena. "Fundazioak, hastapenetatik, helburu bat izan

## Balore handiko liburuak denon eskura

(43. orrialdetik dator)

dutent hitzarmena. "Fundazioak, hastapenetatik, helburu bat izan du: herriarena eta herriarentzako izatea. Eta balio handiko ondareak baditugu ere, errekurso mugatuak ditugu; horregatik, beste errekurso edo lankidetza batzuk bilatzera behartuta gau-de" azaldu du Jose Luis Elkorok. "Gure asmoa dugun liburuen ondarea, herriari zabaltzea da, eta Euskaltzaindiarekin hori lortzen dugu; izan ere, Euskaltzaindiak fondoa ordenatu, klasifikatu eta digitalizatu egin du eta orain, [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) helbidean edonork erabiltzeko moduan dago katalogo osoa. Era berean, konponketa behar duten aleak ere konponduko dituzte. Trukean, baldintza batzuekin erabiltzeko eta kopia bat eduki-tzeko eskubidea du, 90. urtea geroztik izan duen moduan. Azken hitzarmen horrekin, beste urrats bat eman dugu "gainera-tu du Elkorok.

Erakunde biek interes aman-komunak dituzte, horren erakusle da, Euskaltzaindia, Olaso Dorrea Sorrerakundeko kide dela, Fundazioa sortu zenetik. Hori horrela, 1980az geroztik, etengabeko hartu-emana izan dute bi elkarretek. Hitzarmen horretan adostatutakoaz gain, beste proiektu amankomun batzuk ere badituztela gainera-tu du Gartziak.

### GORDETA BAINA ERABILGARRI

Telesforo Monzon eta haren emazteak Maria Josefa Ganuzak Lacomberen bilduma erosi zutenean, Baionako museoan gorde zuten lehendabizi. Ondoren,



EUSKALTZAINDIKO BIBLIOTEKARIAK Ezkerretik eskuinera, Pruden Gartzia, Josune Olabarria eta Jose Antonio Arana. A.A

euren etxera ekarri zuten, Olaso Dorrera alegia, eta hiru bat urte direla, Euskaltzaindiara eraman zuten. Datozen hamar urtetan, Bilboko alde zaharreko plaza berriko Euskaltzaindiaren egoitza nagusian izango da. "Orain-dik kokapen zehatz zehaztu gabe dugu baina ditugun depositu edo aretoetako baten kokatuko dugu. Hitzarmenarekin batera, kontserbazio plan berezi bat abian jarriko dugu" azaldu du Gartziak, Azkue Bibliotekakoak.

Euskaltzaindiaren Bibliotekan dauden beste dokumentuak moduan, azken horiek ere publikoarentzat ikusgai daude: "Biblioteca zabalik dago ikerle guztientzat, profesional, ikasle, edo herritarra dela. Ikerleak ez dira-eta derrigorrez tituludunak izan behar. Ikertzaileak behar duen dokumentua eskuratzeko, iker-tenari denari buruzko arrazoia zein den azaldu behar du. Ondoren, eskaera aztertu egiten dugu" dio Gartziak.

### URREAREKIN EROSITAKO BILDUMA

Eguazteneko ekitaldiari amaiera emateko, bildutako artean zegoen Jose Luis Lizundia euskaltzainak, Monzon familiak Lancomberen bilduma nola eskuratu zuen anekdota bitxia kontatu zuen: "Garai hartan, franko monetaren balioa nahiko debaluatua zegoen, apena zuen sinesgarritasunik paperezko diruak; hori horrela, urrezko txanponarekin erosi zioten bilduma, Lacombereren arrebari".

## BILDUMAKO LIBURU BATZUK




'Bizkaierazko Katixima'  
1660

Bizkaia lehen katixima da, Pruden Gartzia, Euskaltzaindiaren bibliotekariaren esanetan, balio handikoa, besteak beste, ezagutzen den ale bakarra delako Bergarako Fundazioaren jabetzan dagoen hori.




Leizarragaren 'Testamentu Berria', 1571

Leizarragak idatzitako euskarazko bibliaren bi ale daude dohaitzan emandako bilduman. Balio handikoa da. Orain gutxi, albiste izan zen biblia horren beste ale bat, Euskaltzaindiak Londresen eskuratu zueneari.



Pedro Axularren 'Guero'  
1643

Pedro Axular idazlearen maisu lana da *Guero*. Euskara eta euskalgintzan, erreferentea izan den liburua. Lacomberen bilduman dagoen alea, ederra eta egoera onean dagoela azpimarratu zuten Euskaltzaindiakoek.



'Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons'

Pierre L'ancrek 1613an idatzi zuen euskarazko beharrean, Euskal Herriari buruzkoa liburua da. Euskaldunentzako oso liburu garrantzitsua da. Bere garaian, oso liburu famatua izan zen. Itzulpen asko izan zituen.



Bergarako Olaso Dorrea, Ariznoa plazatik begiratuta.

ARTXIBOA

MUSIKA &gt; KASSIN + 2 ARRASATEN

# Kassin + 2 brasildarren emanaldia bihar, Amaia antzokian

Samba, garage rocka eta bolero ukituak dituen 'Futurismo' diskoa aurkeztuko dute Arrasaten; hirukotearen hirugarren lana da

**EDU MENDIBIL > ARRASATE**  
Alexandre Kassin (baxua eta ahoatsa), Domenico Lancellotti (perkutsio elektronikoa eta samplerrak) eta Moreno Veloso (ahotsa eta gitarra) dira Kassin + 2. Bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian izango ditugu, 20:00etan.

Oraingo hiru disco grabatu dituen musika elkartea osatzen dute brasildarrek. Hiru ardatz dituen talde honek soinu diferen-teek jorratu ditu: 2000. urtean Caetano Velosoren seme den Morenoren *Music typewriter* kale-ratu zuten; handik lau urtera Domenicoren *Sincerely hoteman* zuten argitara eta iaz, Kassin + 2ren *Futurismo* izenburuko dis-koia eterri zen. Musika elektro-nikoa eta bestelako erritmoak nahastuz, Brasileko ikur diren samba, bossa nova eta tropicàlia

musikari eusten die hirukoteak, bestelako influentziei (Japonia aldeko doinuak esaterako) muzin egin gabe. Bakarka, taldekideetako bakoitza kompositore berezia, lehen mailako instrumentista eta izen handiko produktore bilakatu da azken urteotan. Proiektu honetan ez ezik, Orquesta Imperial izeneko proiektuan hartzen dute parte. Uztailean Espaniako Estatura itzuliko dira Orquesta Imperialarekin.

#### ELEKTRONIKA ETA BOSSA NOVA

Arrasaten aurkeztuko duten *Futurismo* lanari dagokionez, samba, garage rocka eta bolero ukituak antzeman daitezke. Elektronikak eta bossa novak ere pre-sentzia nabarmena dute. Kassinen hitzetan, "zerbait modernoa egingo nuela uste zutenak ustekabean harrapatzea izan da nire



KASSIN + 2 Brasildarrek musika elektronikoa eta bestelako erritmoak nahasten dituzte.

GOIENKARIA

asmoa. Zerbait melodikoa eta lasaia egin nahi nuen eta Futu-rismo izenburua txantxa bat bai-no ez da, diskoa kontrako bide-tik doa eta". Kritika bat etorri da hirukotearen lan borobilena dela aipatzean. *Pra lembrar erromanti-koia*, *Homem ao mar* rockeroa edo *Mensagen* pop abestia dira

diskoko kantu entzutesueneta-koak. Ziurrenik, aurreko bi lanei erreferentziak dira faltako Arra-sateko kontzertuan. Hirukotear-reakin batera, Stephan San Juan-ek (bateria eta perkusioa) eta Alberto Continentinok (baxua eta gitarra) hartuko dute parte biharko emanaldian.

#### SARRERAK, 10 EUROtan

Zapatuko emanaldia, esan beza-la, 20:00etan hasiko da eta sarre-rak Amaia antzokian edo <http://www.generaltickets.com> helbidean eskura daitezke, 10 euroren truke. Era berean, Ser-vikutzazainetan sarrerak esku-ratzeko aukera dago.

ARTEA &gt; ARCO FERIA MADRILEN

## Manu Muniategiandikoetxea eta Jesus Mari Lazcano margolari bergararrak, Arcon

Biek euren azken lanak erakutsiko dituzte arte garaikideko ferian; Miniategiandikoetxea zein Lazcano beteranoak dira Arcon

**E.M. > BERGARA**  
Gipuzkoak ez badu izango arte galeriarik Arco ferian, hainbat artistik euren azken lanak era-mango dituzte Madrileko feria-ra. Horien artean, Jesus Mari Lazcano (1960) eta Manu Muniategiandikoetxea (1966) bergararrak izango dira.

**ARCOKO BETERANOAK**  
Muniategiandikoetxeahonezke-ro Arcoko beteranoa dugu. 1995ean hartu zuen parte lehen aldiz eta ordutik ez du hutsik egin. Azken urteotan Espacio Minimo galeriaren eskutik erakutsi du bere lana Madrilen: "Hemen ego-teak horixe dauka: saltsan ego-tea, zure lana merkatuan egotea, nahiz eta beste 2.000 artista inguru-keren egon. Beti da interesga-



LAZCANO Windsor Kulturgintza galeriarekin izango da bergararra Arcon. ARTXIBOA

rria azken urtean egin duzun lana erakutsi ahal izatea. Egia da batzuetan nekagarria egiten dela aurpegi berdinak ikustea, azken baten saltzailee, profesio-koei zuzendutako feria delako". Bestalde, pinturan ibilbide luze eta oparoa daraman Jesus Mari Laz-

kano Windsor Kulturgintzarekin izango da Madrilen. Arco fe-ria astelehenera arte izango da zabalik Ifemako egoitzan. 28. eki-taldian Brasil da gonbidatutako herrialdea eta mundu osoko 34 herrialde ordezkatuz 295 gale-riek hartuko dute parte.

ANTZERKIA &gt; BERTSO ANTZERKIA OÑATIN

## '1, 2, 3... Iñaxito!' zapatuan Santa Ana antzokian

Trikuharri taldeak 'Iñaxitoren ametsak' lanaren jarraipena ekarriko du

**E.M. > OÑATI**  
Trikuharri taldearen eskutik 1, 2, 3... *Iñaxito!* bertso antzerki emanaldia izango da bihar, zapatua, Oñatioko Santa Ana antzokian, 17:00etan.

Lau urte pasa dira honez-kerro Trikuharrik *Inaxitoren ametsak* kaleratu zuenekit. Orain, bi urtetan ametsetan ibili ostean, jolasean, ezkutatzen dabil Iñaxito: zenbakiek ezkutatzen, hain zuzen. 1, 2, 3... *Iñaxito!* bertso antzerkiak haurren irudimena, sormena lan-tzea du helburu. Buruari era-ginez zenbakiak bilatu eta aurkitu beharko dituzte ikusleek, antzezeen laguntzarekin. Esate-baterako, zein zenbaki da luze bezain argala eta sudur luze-luzea duena? Eta hanka-luze, buruhandia?

Haurrei honako mezua plazaratu nahi diete Trikuharri-koek: irudimena erabiliz dena

possible dela. Istorio xelebreak nagusi izango dira zapatuko antzerki emanaldian eta sorpre-sak ez dira faltako.

#### HAURRENDAKO EMANALDIA

Oñatioko Errekalde Herri Esko-lak antolatutako emanaldia da biharkoa. Sarrerak 2 eurotan jarriko dituzte salgai eta anto-latzaileek neska-mutikoak gondi-bidatu nahi dituzte emanaldian parte hartzeko. Bertsoekin jo-lasteko aukera izango da bihar Oñatin.



IÑAXITO Emanaldiko kartela.



## hildakoak

• Jose Luis Anduaga. Oñatin, otsailaren 9an. 72 urte.

• Maria Caballero Benitez. Bergaran, otsailaren 11n. 49 urte.

• Teresa Martinez Sanz. Arrasaten, otsailaren 11n. 94 urte.

• Javier Gartzia Arana. Bergaran, otsailaren 11n. 69 urte.

• Maria Dolores Aranburu Agirre. Oñatin, otsailaren 12an. 83 urte.



**Carlos Perianes** oñatiarra eta **Idoia Lasaga** arrasatearra orain dela 25 urte ezkondu ziren, otsailaren 12an. Arantza-zun ziren ezkontzeoak, baina sekulako elurtea egin zue-nez Oñatin ezkondu ziren. Zilarrrezko ezteiak ospatuko dituzten honetan, zorionak!



**Amagoia Barandiaran** eta **Iñaki Lopez** otsailaren 2an ezkondu ziren Arrasaten. Ospakizuna Baster-Alde jatetxean egin zuten eta ezkon bidaian Zeelanda Berrira joan dira. Zorionak, bikote, eta laztan handi bat familiakoen partetik. Izan zoriontsuak.

### OROIGARRIA

## Maria Caballero Benitez

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 11n.

*Maite zaitugu.*



Zure koadrila.  
Bergaran, 2008ko otsailaren 15ean.

### ESKELA

## Javier Garcia Arana

(Mari Glori Echanizen alarguna)

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 11n, 69 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

**GARBIL INPRIMATEGIA**



Bergaran, 2008ko otsailaren 15ean.

### ESKER ONA

## Javier Garcia Arana

(Mari Glori Echanizen alarguna)

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 11n, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi, eskerrak asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko otsailaren 15ean.

### URTEURRENA

## Simon Garitano Berraondo

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 17an, 12:50ean,  
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Pakita Agirrezabal Belastegi

Frantzisko Erce Diezen alarguna

Bergaran hil zen 2007ko otsailaren 11n, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 17an, 12:50ean,  
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

## Teodoro Trojaola Jauregi

Gasteizen hil zen 2008ko otsailaren 8an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi, eskerrak asko etxekoien izenean.

Ondrak domekan, otsailaren 17an, 12:00etan, Gesalibarko Santa Ageda elizan.



Gure bihotzean egongo zara betirako.  
Etxekoak.  
Gesalibarren, 2008ko otsailaren 15ean.

### III. URTEURRENA

## Emili Zilaurren Azkargorta

Hirugarren urteurreneko meza domekan, otsailaren 17an, 12:00etan,  
Aramaioko San Martin elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Josefina Lazpiur Elkoro

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 17an, 12:50ean,  
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

## Francisco Javier Iturralde Uranga

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 7an, 57 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi, eskerrak asko.

Haren ama: M. Pilar Iturralde;  
arreba eta koinatua: Begona Ormaetxea eta Juanan;  
ilobak: Ignacio, Alberto, Hilario eta Lidia.

Bergarako Mizpirualde egoitzako langileei esker onenak familiaren partetik.



Bergaran, 2008ko otsailaren 15ean.

### Babeslea:


OROILORE Hileta eta Beilateki zerbitzuak  
Amillaga auzoa 27. 20570 Bergara  
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Fax.: 943 76 94 76  
marib@oroiore.com



**OROILORE**  
Funeraria-Tanatorio  
Hileta eta Beilateki zerbitzuak



## bila-bila 7



## hitz gezidunak

	Elur erauntsi		Gizon izena		Bihurrikeria	
	Beltzak	▼	* Irudiko urtaroa		Araudi	
	Madari	►				
	Bokala	▼				
Ez estua	▼		Araiaoko Zuhaitz mota			
Yankien osaba	►	▼	Euskal fonema	►	Uribe Kosta	►
Jakingo balute	►	▼	Utzi		Alderantzik, 3,1416	
Jantzi mota	►		Hegazti mota	►		
Adiskide	►		Ukabilaren hasiera		Gironalp autoetan	►
Berritsua	►				Röntgen	

## sudoku

	2	7				
9		2	5	1		
5	1	8				
2	3		1			
4				6		
		8		7	9	
				9	5	6
	8	7	4		3	
		6	8			

## hieroglifo a

Norekin joango zara futbolera?

10 2 A

## bono fotoa

**Zein herrian dago argazkiko iturria?**

Argazkia eta galdera &gt; Jose Félix Díaz de Tuesta

P	O	T	T	O	K	A	D	R
U	A	N	I	A	Z	T	R	E
I	R	R	O	G	I	P	Z	A
A	T	A	A	T	P	O	B	T
L	U	M	A	G	O	R	R	I
A	N	K	L	A	T	E	I	S
T	O	G	E	N	S	A	E	H
X	S	M	T	O	T	O	R	A
A	N	A	U	Z	I	T	E	B

**Super BM** 

 Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
 zozketatuko du GOIENKARIK asmatzaileon artean!


ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOAK .....

 Ekarri txartela MARTITZEN EGUDIRIKO  
 Goienako edozein egoitzara
**Ram esnea**

litroa

**0,95 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

 Bergarako **ASUN GARDOKI**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
 Galderaren erantzun zuzena: San Martin-en.



Oier Lopez de la Calle > Informatikaria

# "Teknologia berriak zerbitzu izatetik mendekotasuna sortzera pasa dira"

Gazte arrunt moduan aurkeztu du bere burua Oñatiko gazte horrek. Beste gazteengandik

bereizten duena lan jarduna da, beharbada. Izañ ere, Informatika ikasketak egin zituen eta

arlo horretan ikerlari dihardu. Aisialdian bidaiatzea du gogo-ko eta musika eta irakurtzea ere

badira bere zaletasunak. Kiro-la, igeriketa, besteak beste, albora utziak dituela esan du.

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Oñatikoa da Oier Lopez de la Calle. Ikastera Donostiarra joan zen eta egun, ikerketa munduan buru-bela-rra, hiriburuan pasatzen du astea. Hala ere, hartzen du tarterik herri-rra, lagunengana etortzeko eta bai-ta gurekin berba egiteko ere.

## Zein da Oier Lopez de la Calle?

Gazte arrunt bat, ikerkuntzan diharduena, baliteke hori izatea ezohikoen. Horrek eman dit beste balio batzuei garrantzia ematea edo munduaren beste ikuske-ra bat. Izañ ere, gure inguruan gazte gehienek ikasten dute lan munduan tokia lortzeko eta lana gustuko ez izan arren soldata ira-bazteko. Niri, hori ez zait askorik axola. Nahiago dut lanbidea eta zaletasuna uztartu eta ekonomi-koki prekarioagoa izan.

**Informatikako doktoretza tesia egiten diharduzu. Nola hartu zenuen informatikako bidea?**



Karrera 18 urterekin aukeratu nuen, garbi izan gabe. Arreba zaharrena zen erreferentzia, Informatika ikasketak egin zituelako; baita aita ere, unibertsitateko irakasle delako. Etxean iku-sitakoagatik eta ordenagailuak betidanik gustatu izan zaizkida-lako aukeratu nuen, beharbada. Argi neukan ez nuela nahi hemen geratu eta Ingeniaritza ikasi.

## Tesia egiten diharduzu.

Ordenagailuei hizkuntzak ulertzeko gaitasuna ematen saia-tzen gara. Nire lana lenhoaia naturalen prozesamenduarekin lotuta dago. Ixa taldean dihardut. Kasualitatez sartu nintzen ikas-le garaian beka batekin. Gero, karrera amaierako proiektua eta tesia egin ditut han.

**Oñatitik Donostiarra joan eta egun ere bertan bizi zara, ezta?**

Aste barruan bai, eta aste bukaeretan, planen arabera. Oñati-rekin alderatuta ezberdina da, baina urteen joanean Donostia ere hiri izaera galdu eta herri bihurtzen da. Egunerokotasune-an, Oñatin moduan, betiko den-detan eta tabernetan ibiltzen naiz han ere. Donostian jende asko elkartzan da eta agian horrek egiten du handiago. Gainontzean, astegunetan Oñati eta Donos-tia antzerakoak dira. Kultura eskaintza handiagoa du: zinema, kontzertuak... Baino ez diot hain-besteko probetxurik ateratzan. Gehienetan aste bukaeretan egiten ditugu aisialdi jarduerak eta batera eta bestera mugitzen gara.



IRATI AGIRREAZALDEGI

## PERTSONALA

**Herria:** Tolosa. Gurasoak hangoak dira eta ni neu Oñatikoa izan arren ez naiz erabat oñatiar senti-zten. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Ingeniaritza Infor-matikoa. **Zaletatsunak:** Musika eta irakurtzea. **Bizio-rik?** Parranda egitea. **Bidaiatzeko toki bat:** Ezagu-

tzen ditudanetatik Japonia; eta ezagutzeko ditu-natik Alsazia aldea bisitatuko nuke, nahiz eta hain exotikoa ez izan. **Bizitzeko leku bat:** Donostia ez da tokirik txarrena bizitzeko. **Amets bat:** Siberian zeharreko bidaia egitea.

**Donostia bertan dago, baina urrutira bidaiatu zalea zara.**

Bidaiatzea nire zaletasuna da. Bidaia luzeak, hilabetekoak egin ditut batzuk. *Inter-rail* delakoaren kin hasi nintzen 2001ean lagunekin, Italian, Grezian eta Amster-damen. Ekialdeko herrialdeek ere interesa sortu didate: Errumania, Bulgaria, Polonia, Errusia... Bisi-tatu ditut baita ere Riga, Mosku, San Petersburgo, Helsinki, Eskan-dinavia, Suedia, Danimarka, Alemania... Gehienbat Europan ibili naiz, baina azken bidaia Japonia-ra egin dut, udan. Herrialde bakoi-tzoko kultura ezagutzea gustatzen zait, eta, gastronomia kultura den heinean, jakia probatzea. Bestal-de, iaz Belgikan zazpi hilabete pasa nituen lan kontuak zirela eta. Esperientzia positiboa izan arren, nahiko bakarti egon nintzen, baina ikasi nuen nire burua jasaten eta bakarrik bizitzen.

**Bidaiez gain, zein beste zaleta-sun daukazu?**

Korrika egitera joaten naiz, baina ez nuke nire zaletasunen artean sartuko. Igeriketan ere ibili-takoa naiz, baina alboratuta dau-ka. Zinema dut gustuko, baina zaletasun handiagoa daukat musi-karekiko: diskoak erosi, kontzertuak entzun... Denetarik entzuten saiatzen naiz, gainera. Entzun dudan azken kontzertua Los Coro-nas taldearena izan da, baina Ruper Ordorikaren akustikoa berezia-goa izan zen.

**Askok irudikatuko zaitu tek-nologia berriekin inguratuta; sakelakorik, ordea, ez duzu.**

Hala da, bai. Nahiko eszep-tikoa naiz teknologiarekin eta horrek gizartearen izan dezakeen eraginarekin. Zerbitzu izatetik mendekotasuna sortzera pasa dira. Noizbait erosten badut, gizarteak behartuta izango da. Jende guztiak hitzorduak egiteko sakelako telefonoa erabil-tzen badu, behartuta egongo naiz ni ere bide hori erabiltze-ra. Orain laneko telefonoa era-biltzen dut edo e-posta bidez komunikatzen naiz.

**Aurrerantzean zein asmo duzu?**

Tesia amaitzea da nire lehen nahia, eta, baikor izanda, bi urte beharko ditut. Hortik aurrera ikerkuntzan jarraitu nahi nuke. Oso mundu gogorra da, ez dauka-gulako ziurtasunik. Irakaskun-tza ere ez nuke baztertuko, baina unibertsitatean gero eta ikasle gutxiago dago. Berriz kanpora joateko ideia ere ez dut baztertu.



PLATOA Goiena Telebistako instalazioak eta tresneria erabiliko dituzte ikasleek egubakoitz arratsaldeetan.

XABIER URTZELAI

UNIBERTSITATEA > PRAKTIKAK GOIENA TELEBISTAN

## Ikus-entzunezkoetako ikasleek praktikak egingo dituzte GOITBn

Laugarren mailako ikasleek 'Produkzioa eta errealizazioa' ikasgaiko praktikak egiten dituzte, eta pixkanaka telebistako lan jardunera ohitza da asmoa

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE Huhezik akordioa egin du Goiena Telebistarekin. Hitzarmen horren harira, Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek Goiena Telebistaren instalazioak eta tresneria erabili ahal izango dituzte astean behin, egubakoitz arratsaldeetan, praktikak egiteko. Gainera, telebistako teknikari batek lagunduko die.

**TELEBISTAKO LANERA GERTURATUZ**  
Ikus-entzunezko Komunikazioa lizenziaturako laugarren mailako ikasleak direla praktiketan dihardutuenak. Huhezik irakasle Idoia Astigarragak azaldu dueñe, "lehen lau hilabetekoan taldeka film laburra egin dituzte. Bigarrenean telebistako errealizazioari begira jarri gara. Horretarako, astero etorriko gara Goiena Telebistara, ikasleek kamera eta errealizazio praktikak egin ditzaten".

Helburua da praktiken amaieran talde bakoitzak programa bat egitea. "Ez dakit denborarik izango dugun, baina hori da asmoa. Goiena Telebistan jasotako materiala eta irudiak eraobiliz, zuzenean ibiliko balira bezala jardungo dute ikasleek, pixkanaka egoera horretara gerturatuz", esan du Idoia Astigarragak.

**IKASITAKOA PRAKTIKAN IPINI**  
Oraindik hasi berriak dira praktiketan, eta, irakaslearen esanetan, "hasierako esperientzia positiboa izan da".

"Taldeka bakoitzak lan bat hartu du: errealizadore, aurkezle, kameralaria, soinu teknikari... eta eguneko albistegia egiten saiatu gara. Praktikek lagunduko digute lanerako jarraibideak eta zuzenekoaren erritmoa harantz", azaldu digu Naroa Etxebarria Huhezik irakasleak.

Onintza Aiestaran ikaslea ere bat dator horrekin: "Aukera daukagu ikasitako teoria platora etorri eta praktikan ipintzeko. Telebistako lana ezagutzen genuen, baina ez dugu aukerarik izan bertan lan egiteko. Leku txiki bat izanik, gainera, bakoitzak gauza asko egin behar dituenez, uste dut gerorako ere gauza gehiago kontrolatzen ikasiko dugula".

### teknologia berriak

> FLASH MEDIA ERREPRODUZITZAILEA

**Argazki, abesti eta bideo mordoa gorde eta modu arinean batetik bestera eramateko tresna**

Bosgarren belaunaldiko Archos etxeko erreproduzitzalea ez da nolanahikoa. Estetika zaindua du eta ahalik eta konpaktuena egiten saiatu dira. Gainera, Archos 105 aparailuak 1,8 hazbeteko LCD pantaila handiagoa du. Oso arina da eta zazpi milimetroko lodiera du. Mac eta PC ordenagailuekin da bateragarria, baita MP3 eta WMA artxiboekin ere. 2 gigako edukiera du eta 1.000 abesti, 200.000 argazki edo konprimitutako 12 ordu euro sar daitezke.



Estetika zaindua du, konpaktu da eta 1,8 hazbeteko LCD pantaila dauka.

> ARGAZKI KAMERA

**Karkasadun argazki kamerak ur azpian ere nahi beste argazki ateratzeko aukera ematen du**

Uretan zein kanpoan argazkiak ateratzeko aukera ematen du Casio EX-Z1050 kamerak, karkasari esker. Txikia eta erabiltzeko erraza da. 10,1 megapixel ditu eta 3x-eko zoom optikoa. LCD pantailak 2,6 hazbete ditu. Segundoko zazpi kliska egiteko gaitasuna du eta bateria beteta izanez gero 370 argazki atera daitezke. Ur azpiko karkasa silikona pastaz egina dago eta flash zabaltzailea du. 40 metroko sakonerarai-noko erresistentzia du.



Silikona pastaz egindako karkasari esker ur azpian atera daitezke argazkiak.

> SAKELAKO TELEFONO

**Kirolariendako prestazio zehatzak dituen Sony Ericsson etxeko telefono sendoa**

Sony Ericsson W710 sakelako telefonoa Z710 telefonoaren walkman bertsioa da. Kirolariendako bereziki prestatuta dago. Ez aparailuaren itxura eta egitura sendoarengatik soilik, dituen prestazio zehatzengatik baizik.

Lasterketan kirolariak daraman abiadura neurten du, baita egindako distantzia eta entrenamendu denbora ere. Gainera, fitnesserako aplikazio berezia ere badauka.

Bestalde, kirol jarduera arintzeko musika erreproduzi-tzailea du.



Kirolariaren abiadura, egindako distantzia eta entrenamendu denbora neurten ditu telefonoak.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko-blog.komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog.komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn  
/aistui  
/arantxa  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz-  
aseguruak  
/BZ-sistemas  
/bolusukaldeak  
/denetik

/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/guzkigraf  
/ekilore  
/ekin  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/galastegi  
/ganesha  
/garaia  
/gertu  
/gorkataxi

/gorla  
/gurea  
/gutzizeder  
/hamakataberna  
/itxaseder  
/irudisport  
/ixaun  
/izeder  
/jrcacing  
/lamaino-etxeberri  
/lorelan  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi

/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiópticas  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/optico  
/otzeta  
/pando  
/perfipar  
/puerta-ingles  
/richimaior  
/tabernaberri

/udalatx  
/udalaitz  
/erdeki  
/ugarterioratza  
/urbeta  
/urko  
/vitoria  
/zaindusz  
/ziripot

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)  
[www.biark.net](http://www.biark.net)







Zure Chevrolet Captivak zoriontsu egingo zaitu.  
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.

**CAPTIVA** Chevrolet markako edozein auto erosita, hilabete ona izan dela baiezatzeko. Captiva, ondorengo bertsioak: 5 edo 7 jarleku, ESC, iraultzetik babesteko kontrola, balazta-asistentzia, jaitsiera-kontrola, cruise-kontrola, 6 aire-poltsa eta aparkamendu-sentsorea. Bertsioen araberako ekipamendua. Autoarekin gustura ez bazara geratzen, dirua bueltatuko dizugu, eta beste marka bateko autoa erosi nahi baduzu ere bueltatuko dizugu dirua. Chevrolet Captiva, zoriontasunez betea.

**CAPTIVA**  
Diesel motorrak: 127 ZP eta 150 ZP  
Gasolina motorrak: 136 ZP eta 230 ZP  
5 urteko bermea  
24.600€-tik aurrera

GEHIAGO DA.  CHEVROLET

Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es  
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es

Prezio ballagarria Penintsulan eta Balear uharteetan Captiva 2.4 LS bertsioarentzako (BEZA, matrikulazio zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza ballagarria hilabete bukaera arte. Kontsumo mistoa (l/100km): 7,2-11,5. CO<sub>2</sub> emisioa (g/km): 191-264. Eta 5 urteko bermea: 3 urteko kontratu-bermea (3 urtekoa edo 100.000 kilometroko; kilometroen mugak da lehen bi urteetan aplikatuko. 23/2003 Bermeen Legearen arabera) eta horri 2 urte gehitu behar zaizkio, Chevrolet 5 Zerbitzuak eskaintzen dizkun kontratuaren baldintzakin.



Komunikazio Zerbitzuak

Hedabide guztietarako  
**telefono berria eta bakarra**  
**943 25 05 05**



ASTELEHENKO  
**Goienkaria**

**Goienkaria**

 ARRASATE  
IRRATIA

**Goiena.net**  
Debagoieneko Interneteko ataria





# Aitaita-amamak, umezain

**HITZORDUA** Bilobak zaintzen dituzten aitaita-amamak apirilaren 5ean batuko dira umeokin argazkia ateratzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE  
Asko dira gurasoak lanean dauden bitartean haien seme-alabak zaintzen dituzten aitajaun-aman-dreak. Bada, Arrasaten hitzordua egin dute aitaita-amama umezainek, bilobekin argazkia ateratzeko. Seber Altube plazan batuko dira apirilaren 5ean, 12:00etan.

Jose Luis Azula da deialdia egin duen aitaitetako bat: "Orain dela lau urte lagun batek eta biok argazkia atera nahi genuen zaintzen ditugun bilobekin. Egunkarien bidez deia zabaldu eta 32 lagun elkartu ginen. Urte batzuk pasa dira, eta errepiatzea pentsatu dugu".

**ERRETIRATU ONDOREN ERE LANEAN**  
Bilobak zaintzen dituztelako esamesa asko entzun izan dituztela esan digu Jose Luis Azulak: "Lagunek kritika egin zidaten bilobak zaintzen hasi nintzenean, baina haien aitaita izan direnean ere gauza bera egin dute. Baina badira lotsatzen direnak ere". Hortaz, gustura dihardu horretan. Arrasaten bere moduan ibiltzen diren

100 aitaita-amama baino gehiago daudela esan digu: "Aitaitok jarduten dugu gehiago umezain lanean; amamek etxeko lanak egiten dituzte, eta nahikoa dute horrek", dio Azulak.

Jose Luis Azulak 60 urterekin hartu zuen erretiroa eta ordutik hona bilobak zaintzen dihardu emaztearekin batera: "Biloba nagusia eskolara eramatzen dut; gero, txikia hartu eta paseoan joaten naiz; eta amamaren era erotzen dut; berriro nagusia eskolara eraman eta irteten denean bila joan... Bilobak zaintzen lantokian baino lan handiagoa egiten dudala iruditzen zait".

**OROGARRI ETA ESKER ONA**  
Umeak zaintzea, gurasoendako laguntza izateaz gain, aitaita-amamendako entretenimendu ere bada: "Bestela elkartera edo tabernarria joango ginateke, eta umeekin paseoan ibiltzen gara", esan digu.

Apireleko lehen zapatuan aitaita-amamek argazkia aterako dute, orogarri eta euren lanaren esker on modura.

**KRITIKA** Jendearen esamesak entzuten dituzte bilobak zaintzearren, baina gustura jarduten dute horretan

**AITAITAK** Umezain lanetan amama baino aitaita gehiago ibiltzen dira, emakumeek etxeko lanetan jarduten dutelako



ZAINTEAILEAK Julio Orobengoa, Josu bilobarekin; Jose Luis Azula, Nerearekin; eta Maria Lorenzo, Maddirekin. IRATI AGIRREAZALDEGI

## ahobero

"Zalantza barik, sekula izan den izarrik handiena naiz ni"

Julio Iglesias > Abeslaria

Bogotan egindako kontzertu batean esan zituen hitzok Julio Iglesiasek eta txalo zaparrada-rekin hartu zuten jarraitzaileek. 1.500 lagun ziren bertan eta zin egin zien berri zitzuliko dela aurten, hurrengoan 30.000 lagunen aurrean abesteko. Handia bada eta erakarpen indar handia du, bai, baina apaltasun apur bat ez litzaioko batere gaizki etorriko.

## iturri onetik

**Debagoieneko Trikiti Eguna Oñatin izango da, apirilaren 26an**

Oñatiko trikitizaleak hasiak dira datorren apirilaren 26rako ekitaldiak gertatzen. Debagoieneko IV. trikiti eguna izango da, eta, ibarreko trikitilariez gain, Trikizio taldekoek eta Imuntzo eta Belokik ere jardungo dute. Aurrez, giroa berotzeko, apirilaren 19an trikitiaren gaineko hitzaldia eta erromeria izango dira. Hortaz, soinu txiki eta pandero hotsik ez da faltako Oñatin apirilean.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

### Errementaria

**K**landestinitatean *Herrero* esaten zioten. Aita errementaria zuen Josu Otaduik, eta bera ere ofizioan hasitakoa zen, nahiz gero kooperatibetan jardun zuen langile. Sindikalgintzan eta politikan tinko aritu zen beti, euskara, ezkerra eta Euskal Herriaren alde. Urte zaharrarekin hil zen, laurogeitaka urte beteta. Ostiralean egin genion agurreko ekitaldia Kulturaten.

Gauza on asko esan zuten Josuri buruz gehien ezagutu zutenek. Nik, belaunaldi bat geroago, uste dut Josuk ganoraz bete zuela bere eginkizuna. Sinetsita nago bizitzan gehienez ere dagokigula hartu duguna geroratzea, ahal dugun neurrian hobetuta.

Eta *Herrero*, eta bera bezelako pertsona sendoak, aisa sartzen zaizkit kategoria horretan. Haiek egin dute. Eta guk?

## ai, ene!



**Ohea eta liburutegia biak batean**

Ohera joan aurretik irakurtzea gustuko dutenedako aukera-aukerako asmakizuna; eta ohea desegin ostean, liburua apalera.

www.nopuedocrear.com

Ingurumena zaintza guztiak kontua da.

Toyota Prius autoak Hybrid Synergy Drive teknologia dauka. Gasolina eta elektrizitatea konbinatzen duten motorrekin, CO2 emisioak eta airea kutsatzeko duden beste substantzia batzuk gutxitzea lan egiten dute.

Toyota Prius, matrikulazio zerga ZERO euro. Helburua: kutsadura maila ZERO izatea.

Toyota Prius 2008 **22.500 €-tik** aurrera

Probatzeko, gertuen duzun kontzesionariora joan maiatzaren 31 baino lehenago.



[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)



**EuskoAuto**

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI